

K...eta
Kitto!

2017-11-24

1.005 zkia.

Asier Sarasua

**Txiri-txiri,
txara txikira
txoritxara**



**Catalana
Occidente
Seguros**

Eibarko Txikito, 8
Tel. 943 200 908
Mobila. 610 422 179
emilio.toyos@agentes.catalanaoccidente.com

EMILIO DE LOS TOYOS
Erreg. zkia. C046815351532K



- Erantzukizun zibila
 - Autoak
 - Bizitza eta Jubilazioa
 - Osasun aseguru
 - Istripu banakako eta kolektiboak
 - Arrisku anitzetarako: Familia-Etxebizitza, Dendak, Bulegoak, Eraikinak, Jabeen erkidegoak, Enpresa txikiak eta ertainak, PYMEak, Tailerrak
- ASEGURUAK**



ARATOSTIETAKO...



MAIXA
haurreskolan
UMIAK BEZALA PASATZEKO
Zein ondol!!!



gure **KASINOAN**
beti
irabaziko
duzu!

Aratostei
Gastro-Pub
m



GRAND PRIX

JOKATU GUREKIN:
bikain
pasatuko
duzu!

Tas-Tas



AMEYSALANDIA



KATU KALE

Japoniako
tenplu
sakratuan...

...bake
santuan!



BURLESQUEaren
erreinuan jaja
besterik ez

Bar
DURAN DURAN

ARATOSTEETAKO LEHIAKETA

Aratosteetan giro edo dekorazio onena duen **TABERNA**



Astekari honetan publizitatea jarri dutenen artean, aukeratu zuri gehien gustatu zaizuna:

- ✓ Ametsa
- ✓ Arkupe
- ✓ Beleko
- ✓ Buenos Aires
- ✓ Duran Duran
- ✓ Ez Dok
- ✓ Guridi
- ✓ Hirurok
- ✓ Katu Kale
- ✓ Kultu
- ✓ Maixa
- ✓ Tas-Tas
- ✓ Trinkete
- ✓ Txoko
- ✓ XOK

parte hartzeko...

Giro edo dekorazio onena izan duen taberna aukeratzeko laguntzeagatik ...etakitto!ko **bi kamisetaren** zozketan parte hartuko duzu.

Parte hartzeko:

www.facebook.com/etakittoaldizkaria helbidean sartu eta **"atsegin dut"** eman gustokoen duzun tabernaren argazkian.

Azken eguna: **eguztena, 1**





Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Maialen Belautegi
eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:
Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.100 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)**

eskutitzak

– OHARRA –

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu irain-

garririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali ditezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

Erredakzioa

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

LETXARRERIXA / LITXARRERIXIA.- Premiari gabe jaten direnak, normalean gozoak. "Ez eban goserik, letxarrerixen guria baiño".

astean esanak

"Lehen haurren mozorroak haurrenak ziren; baina, egun, mozorro formatu bera egiten dute haurrentzat eta helduentzat. 5 urtera arte animaliaz, printzesaz, pailazoz eta abarrez janzen zituzten lehen. Orain, 6 urterekin zombi jantzia eskatzen dute batzuek. Gero eta gehiago egiten ditugu nagusi haurrak, ez bakarrik horrekin. Jantziak ere normala baino sexyago izate hori ere horri lotuta dago. Oso gazteak badira, heldu batekin etortzeko esaten diegu; gertatu zaigu jantzi motz-motzak erosi eta gurasoak kontu eske etortzea"

(AINHOA BARRIO, MOZORRO SALTZAILEA)

"Eibar-Granada futbol partida jokatu zuten astelehen gauean, Radio Euskadiko Ganbara saioa normaltasun osoz emititu zen, tarteka konexioa eginez Ipurua zelaiarekin. Munduak ez zuen lurrikararik jasan. Entzuleok agudo eduki genuen Eibarren golen berri eta ez dut uste betiko entzuleek beste irratietara samaldaka jo zutenik. Aspaldiko partez RE-n zentzuz jokatu zuten, euskal futbol taldeen partiden tiraniari muzin eginez. Intzidentzia bakarra Eibarko pare bat zalek sortu zuten, hots egin baitzuten kexaka, Realarekin eta Athletic-ekin ez zutela berdin jokatu argudiatuz, arrazoi osoz. Baina eurek ere hor jarraitu zuten"

(XABIER LASA, KOMUNIKABIDEETAN ADITUA)

"Entitate naturalak babesteko, sufrimendu handia eragiten zaie askotan norbanakoei. Hala gertatzen da populazio kontrolerako edo espezieen babeserako neurriekin. Eta kaltea eragiten da espezieak tokikoan eta inbaditzaileen artean bereiztean. Penintsulako ahate buruzuriaren kasua argigarria da. Beste ahate espezie batekin nahasten ari da eta, horrek tokiko espeziearen berezitasuna arriskuan jartzen duenez, indarrean jarri da ahate horiek kanporatzeko kanpaina. Eragiten zaien mina ezin da justifikatu, gizakiak balira justifika ezina izango litzatekeen moduan. Horregatik kritikoak gara ekologistekin"

(CATIA FARIA, ANTIESPEZISTA ETA FEMINISTA)




ENRIKE SOSOLA

“Gero eta gehiago gustatzen zait Eibar”

Halaxe zioen euskal idazle kongsagratuenak aurreko astean irrati publikoan. Feministen borrokaz ari zela, Eibarko emakumeak bozka-eskubidea izaten lehenengoak izan zirela aipatu zuen, zehazki 1933ko hauteskundeetan. Errepublikako banderarena gutxi ez eta honetan ere pioneroak. Bejondeigula. Baina ez gaitzen lotan geratu. Eibar-marka etengabe elikatu beharra dugu lehen ere langa altu egon arren. Eta nik honakoan proposamen batekin natorkizue: Klima-Aldaketa eta petrolioaren menpeko garaietan murgilduta gaude. Energi iturri berriztagarrien aldeko hautua egiteko uea datorkigu, bai ala bai. Hasi beharrean gaude honetaz hitzegiten eta aktuatzan. Arrate, Akondia eta Santakruz-eko Plan Berezia lantzen ari da egunotan, bertako ondare naturala zaindu eta babesteko asmoarekin. Aukera paregabea arazo honi heldu eta lanean hasteko, gizakion jokaeraren printzipio oinarritzakoari erreparatuz: “erabilgarri ez zaiguna ez dugu zaintzen ez eta babesten”. Horregatik, mendiaren kudeaketa egokia lortu behar dugu babesa/ustiapena bikotea iraunkortzeko. Lur-jabe, naturzale eta erakundeak elkartuz, gure mendietako egurra baloratzeko ekimena landuko bagenu? Biomasaren aldeko hautu estrategikoa hartu eta eskualde mailako energia berriztagarri horniketa publikoa sortuko bagenu? Txorakeria? Ur-horniketa publikoa bezain oinarritzakoa ez al da energiarena? Trantzisio energetikoaren ildoan, bide-urratzaile izaten jarraitzeko parada ezinhobea daukagu parean. Baita gure autoestimuari hortxe goian eusteko parada historikoa ere.

Javier Gorosabel deittu detse asteroide bateri

Nazioarteko Astronomia Elkartek, Iruñeko Planetarioak eta Espainiako Astronomia Elkartek hala eskatuta, Javier Gorosabel Urkia astrofisiko eibartarren izena jarri detse gure eguzki-sistemako asteroide bateri. 2015eko apirilaren 21ian, gazte hil zan arren, oso ibilbide emankorra eta oparua egin eban Astrofisikan eta gamma izpizen ez-tanden ikerketan egin eban biharrak mundu maillan garrantzi handiko erreferentzia da.



Zeelanda Berrian, *BOOTES-3* estaziñotik *Yock-Allen* teleskopixuarekin hartutako irudixa, 2017ko otsailaren 17xan (IAA-CSIC eta NIWA).



kolonoskopia egin eta gero, 7 positibo (%3'59) antzeman zittuen iaz Mendaroko ospitalian. Debabarrenian 50 urtetik gora dittuen 11.821 biztanlietatik 6.776 laguneri (%61'85) bialdu zetsen probia etxian egitteko kita eta %75'56k egin eben; danera kasu positibuak 240 (%4'69) izan ziran.



Debabarrena Berritzen abiatzeko saia eguaztenian

Debegesa garapen agentziak, Elhuyarrek alkarlanian eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntasunari esker, Debabarrena Berritzen izeneko proiektua jarriko dau martxan. Helburu nagusixa gaur egunian daguzan erronka sozialeri erantzun propio eta egokixak emoteko gaitasuna eskualdian hobetzia da eta, horrekin batera, barrikuntza sozialiaren inguruko dinamika iraunkorra sortzia be nahi dabe. Asmo hori betetzeko, askotariko eragilliekin osatutako topagunia antolatuko dabe eta lehen saia datorren astian, martxuaren 1ian egingo da, 09:00etatik 11:00etara Debegesan. Saio horretan egitasmuaren barri

emongo dabe eta hainbat esperientzia interesgarri ezagutzeko aukeria be izango dala emon dabe aditzera. Batetik Sakanako Haritzak, Sakanako hariztieri balixua emoteko proiektua azalduko dabe eta, bestetik, Urola Erdiko lau enpresak mekanizatu arluan dittuen premiña komunerri erantzuteko alkarlanian sortutako Munibe Group izeneko ekimenaren barri emongo dabe. Debegesak eskualdeko herritar guztiak parte hartzera gonbidatu nahi dttu. Interesa dakenakkomunikazioa@debegesa.eus helbidera idatzitta edo 943 82 01 10 telefono zenbakira deittuta izango dabe izena emoteko aukeria.



Umiendako jolasleku barrixa Legarren

laz auzorik auzo egindako billeretan hainbatek eskatutako moduan, **Berdintasunaren Pasealekuan**, San Andres zaharren egoitza parian umiendako jolaslekua ipiñi dabe. 21.676 euro (BEZa barne) kostau daben jolasleku barrixan bueltaka dabillen aukixa, ziburu zaurak, txirristak eta zubixa eta pasabiddia dittuan jolasa ipiñi dittue. Horrekin batera jokuak zelan erabili azaltzen daben panela eta inguru guztia babesten segurtasun-hesia eta trenbidera emoten daben aldian polikarbonato xaflak be ipiñi dittue, Amañako parkian moduan.

Jaso dabe Mogel Isasiko otarra

Gabonetan zozketatu eben **Mogel Isasiko** otarraren sariduna azkenian agertu da. Argazkixan ikusten dozuen moduan, rifaren irabazliak pozarren jaso eben sarixa, Jon Garaizabal ikastetxiaren zuzendarixaren eskuetatik.



autuan



PAGATXAREN ZINE-FORUMA

Pagatxa emakumien alkartiak datorren barixakurako, martxuaren 3rako, zine-forum saiaua antolatu dau, 19:00etan Portalean. Edith Piaf (1915-1963) abeslari ezagunaren bizitza kontatzen daben "La vida en rosa", Olivier Dahanek zuzendutako filma emongo dabe eta ekitaldixan parte hartzia duan izango da.

...ETA KITTO!-REN BATZARRA

Martxuaren 16rako deittu dau ...eta kitto! Euskara Elkarteak urteko batzar nagusixa, 19:00etan lehen deialdixan eta, bazkidiaren erdixa bertaratu ezian, 19:30xetan bigarrenian. Alkartiaren egoitzan (Urkizu, 11) egingo dan batzarrerako gai-zerrendia hauxe da: 2016ko gestiño-balantzea; 2017rako egitasmuak, bazkide kuotak eta aurrekontuak; galdera-erantzunak eta iradokizunak; zuzendaritza barrixaren hautaketia eta funtzionamendua; eta piskolabisa.



Funeraria Ehorztetxe
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>Bulegoa Bidebarrieta, 20</p>	
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	



El Corte Ingles Eibar, 1. solairua
 Tfnoak. 943.20.67.20 eta 633.161.422


%10eko Deskontua

Balio du 2017-III-31era arte



kale izena pertsonaiaren izana

FERMIN CALBETON Eibarri demaseko laguntza eta bultzada eman zion politikoa izan zen. Hori dela eta, gure herriak erdialdeko kale ezaguna eskaini dio. Fermin Calbeton ez zen Eibarren jaio, eta bizi ere ez zen sekula gure herrian bizi izan. Donostian jaio zen 1853an eta Madrilen egin zituen ikasketak. 1877an zuzenbide lizentziatura atera zuen. 1889tik 1893ra arte diputatu hautatu zuten Donostian. 1898an Gipuzkoatik senadore izendatu zuten eta 1910ean Canalejasen gobernuan Sustapen Ministeritzara heldu zen. Vatikanoko enbaxadore ere izan zen. Eibarri dagokionez, ezinbestekoa dugu Fermin Calbeton eta Armagintza Eskolaren izenak lotzea. Lan handia egin zuen Madrilen dirulaguntza eta baimenak lortzeko. Pasa den mendeko hasieran sarritan egon zen Eibarren Eskolaren proiektua hurbiletik jarraitzeko. 1913an Eibarko Udalak Hiriko Seme Kuttun izendatu zuen. Era berean, lehen Untzaga deitzen zen kalearen izen aldaketa egin zuten, Fermin Calbetonen izena jartzeko. Azkenik, eta Romanonesen gobernuan Hazienda Ministroa zela, Madrilen hil zen 1919ko otsailaren 4an.



Dibujo Eskolarekin elkarlanean



egilea:
FERNANDO
ESNAOLA



Herritarrak M7-rako galderia adosteko saia

Debabarrenian erabagitzeko eskubi-diaren alde Gure Esku Dago elkarteak egin daben siñadura bilketia amaituta, maiatzaren 7rako aurreikusitta dagan galdeketa egin ahal izateko bidian beste pauso bat aurrera emoteko saioa da ointxe: egun horretan egingo dan galderia herritarrak adostu biharko dabe eta, lan horretan laguntzeko, beste tokietako adibidiari jarraituta saio bat egingo da gurian be. Martxuaren 4an izango da, Arrate Kultur Elkartearen 10:00etan hasitta eta **Mario Zubiaga eta Zelai Nikolasek** gidatuko dabe. Herritar guztiak galderia adosteko saiuan parte hartzea animau nahi dittue.

Frankismuaren krimenen kontra akusaziño modura jarduteko prozedura hasi dau udalak

1936ko uztailleko kolpe militar faxistak ekarri zittuenak sufridu zittuen eibartarren memoriari duintasuna emoteko asmuarekin, iazko azaruaren 2xan udalbatzak aho batez onartu eban moziñuari jarraituta, Argentinako 4591/10 auzian (Argentinako kereilla dalakuan) akusaziño moduan aurkezteko prozedura hasiko dau alkatetzak. Holan "benetan zer gertatu zan argitzia eta altxamenduaz geroztik frankismuak Eibarren eragindako krimen guztiak zigortzia" billatzen dabe eta, horregaittik, udal-talde guztiak eta frankismuaren krimenen aurkako kereillaren euskal plataformiak onartutako hitzarmenak jasozten daben moduan, akusaziño moduan aurkeztuko dau bere burua, "gure udalerriko frankismuaren biktimen inguruan Argentinako epaitegixetan abiatutako prozeduran". Horrekin batera, Udala arduratuko da "gure udalerrian jaso leikiazen frankismuaren biktimen dokumentaziño, tes-

tigantza eta froga guztiak jasotziaz, prozedura penalian sartu ahal izateko".

Hori egin ahal izateko, baiña, eibartar guztieri dei egin nahi detse frankismuaren krimenen batian (bonbardaketak, fusilamenduak, langille batalioiak, desagertziak, kartzelaraziak, torturak, erbestea, desjabetziak...) biktima izandakueri edo haien famelixakueri, nahi izanez gero testigantzak zein salaketak aurkeztu deixen. Informaziño hori jada Udalaren artxibuetan jasota daganari gehittuko detse eta holan memoriara historikua berreskuratzen lagunduko dabe. Nahi daben biktimak Alkatetzara jua leikez (udaletzeko bigarren solairura) edo, bestela, 943 7084 01 telefono zenbakira be deittu leike eta testigantzen inguruan egin biharreko tramitiak zeintzuk diran esplikaiko detse (asteleheneetik barixakura, goizez). Testigantzak emoteko azken eguna 2017ko maiatzaren 31a izango da.



Isekin alkartiaren aldeko txokolatia

Aurreko barixakuan Isekin alkartiaren aldeko txokolate-jana egin zan Untzaga-karpan, Bapobapo.com enpresakuak antolatuta. Ekimenarekin janarixa etxera eruateko enpresiak geure artian izan daben harrera ona eskertu nahi izan dabe eta, horrekin batera, gaixotasun arraruak dittuen umien alkartiari lagundu nahi izan detse, batutako dirua alkartekueri emonda.

Udala eta herritarrak gerturatzeko komunikaziño plana aurkeztu dabe

Astelehen goizian aurkeztu eben prentsaurrekuan dagoeneko prest daken Udalaren Komunikaziño Plana Ana Telleria Gobernua Zabalik Ordezkaritzako arduradunak eta Pedro Irusta Komunikaziño teknika-rikak. Tokiko Gobernu Batzarrak 2016-ko abenduaren 23an egindako bilkuran 2016-2019 Komunikazio Estrategia onartu eban, "erakundia-*ren barne eta kanpo komunikaziñua hobetzeko eta horretarako bihar diran erremintak ezartzeko, ho-*



Ana Telleria Gobernua Zabalik Ordezkaritzako arduraduna.

lan udala herritarreri gehixago gerturatzia" lortzeko asmuarekin. Aurkezpenian azaldutakuaren arabera, beste ezertan hasi baiño lehen diagnostia egiteko biharrari ekin zetsen eta, hortik abiatuta, komunikaziño gaixeri lotutako hainbat gabezia topau dittue: "Barne komunikaziñuaren planifikaziñua urria da, herritarrak ez dittue ondo ezagutzen udalaren tramite, zerbitzu eta jarduerak, udal gardentasunaren komunikaziñua ez da bihar dan bezin beste zabaltzen, udal webguniaren hainbat atal gitxi eguneratzen dira, sare sozialetan gehixago zabaldu biharra dago eta komunikabidietan be tarte gehixago bete leike".

Hórreri erantzuteko hainbat ekimen landuko dittue: "Barrura begira udal saillen, zerbitzuen, unidadien, proiektu lantaldien eta gobernu-organuen bilerak sustatuko dira eta, bestiak beste, barne erabillerarako gidak eta urte birik behin udal langilliak betetzeko inkestak egingo dira". Kanpo komunikaziñua hobetzeko, barriz, beste ekimen batzuk

garatuko dira: www.eibar.eus webgunea eguneratu eta horren barruan gardentasunaren atari barrixa sortuko dabe 'Gobernua Zabalik: Gardentasuna, herritarren partaidetza eta datu irekiak' izenarekin (eibar.gipuzkoairekia.eus orrixarekin lotuta); udal aurrekontuak formato labur, bisual eta ulergarri-guan erakusteko web aplikaziñua sortuko dabe; gardentasunaren inguruko komunikaziño-kanpaiña egingo da; Pegoran zein herriko hainbat tokittan informaziño-pantallak ipiñiko dittue; turismo mikrositea sortuko da; baitta udalaren aplikaziñua, erakundiaren zerbitzu eta jarduerak erakusteko eta herritarreri kejak edota iradokizunak egiteko aukeria emoteko. Zerbitzu Gutunak be sortuko dittue; eta, amaitzeko, sare sozialen hobekuntza plana be egingo da. Azken horri lotuta bi barrittasun nagusi izango dira: udalaren kontu ofiziala sortuko dabe Instagram-en eta udalbatzak hillero egitten dittuan bilkurak Twitter bidez jarraitzeko aukeria egongo da.



Unax Blancok irabazi zeban 100 euroko erosketa-txartela.

Euskeriaren aldeko konpromisuak sarixa dauka

Aurreko astian Toribio Etxebarria kalia egin zan Neguko Merkealdixen Azokan, "Euskeraz Primeran!" kanpaiñiaren harira euskeriaren aldeko konpromiso personala eskatu zetsen ...eta kitto! Euskara Elkartearen mahaira gerturatu ziran herritarreri. Konpromiso horren trukian erosketa-poltsak banatu zittuen eta danak Eibar Merkataritza Gune Irekiak emondako 100 euroko erosketa-txartelaren zozketan sartu ziran. Zozketa egin eta gero, Unax Blanco izan da irabazlia. Barixaku goizian egon zan "Euskeraz Primeran!" kanpaiñiaren mahaxan, semetxuak lagunduta bere konpromisua idazten eta eguaztenian be famelixarekin batera etorri zan poz-pezik sarixa jasotzera. Zorionak!

EIBAR
CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreak / 1. solairua
☎ 943 12 02 00

Itziar Moreno
PSIKOLOGOA
KOLEG. ZKIA. 1947

GIZENTASUNA
ANTZIENTATEA
AUTOESTIMA
ARAZOAK

Tf. 686 85 73 22 moreno_iciar@yahoo.es

Etxe-Lan

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN KONPONKETAK

FAGOR
ARISTON
Whirlpool

ZERBITZU TEKNIKO OFIZIALA
943 79 89 97

RED sare teknika

Arrate Kultur Elkartea

Helburuak eta eskaintako zerbitzuak

Arrate Kultur elkarteak euskarazko kultur sorkuntza babestu eta sustatzea du helburu nagusi. 1952an sortu zen eta hasierako urte haietan Eibarko kultur mugimenduaren erreferentziatzko ardatza izan zen hainbat arlotan. 1500 bazkide izatera iritsi zen arren, 80. hamarkadatik aurrera bere funtzionamenduan beherakada izan du eta gaur egun 300 bat bazkide ditu. Hala ere, jende askoren bolondres lanari esker bizirik dirau. Azken urteetan lokalak berritzu eta apainduz, komisiok sortuz eta ekintza kulturalak antolatu eta bultzatuz herriko bizitza kulturean oinarri batzuk jartzea lortu du eta herriko eragile askorentzat bilgune ere bihurtu da. Egunen batean ezkutuan duen zine-antzerki aretoa berreskuratuzeko asmoa ere badago.

Ekintza nagusiak

- Argazkilaritza: Eguen zuri argazki lehiaketa; San Andresetako argaki rallya; argazkilaritza ikastaroak.
- Gastronomia: Eibarko Pintxo lehiaketa; San Blas opil lehiaketa+ikastaroak, hitzaldi dastaketak.
- Diaporamak: Uztalean diaporamen astea.
- Topalekuko erakusketak.
- Hitzaldiak: Liburu aurkezpen, edo gai ugaritako hitzaldiak
- Kultur ekimen desberdinak urtean zehar.
- Eibarko eragile desberdinekin elkarlanean; Korrika, Euskal Jaia...

helbidea: Zuloagatarren 3
telefonoa: 943 202299/ 638284912
e-maila: arratekultu@gmail.com
sare sozialak:
www.facebook.com/arrate.kulturelkartea
www.twitter.com/AElkart



Herriko eragile askoren bilgune da Arrate Kultur Elkartea.

AGIFES

Helburuak eta eskaintako zerbitzuak

Buru nahasmena duten pertsonen eta senideen Gipuzkoako elkarte 1985. urtean sortu zen. Elkartearen bidez, buru nahasmena duten pertsonen eta haien familiei laguntza gune bat eskaini nahi diegu, egungo arazo sozial eta sanitarioari erantzuteko. Gure eginkizuna da Gipuzkoako gizartean buru osasuna hobetu eta buru nahasmenen normalizazioa lortzeko lan egitea, eta baita kaltetu nagusien beharrei erantzutea eta haien bizi baldintzak hobetzea. Harremanetan egotea gustoko dute.

Ekintza nagusiak

- Harrera eta orientazioa gizarte langilearekin.
- Senide eta zaintzaileentzako laguntza.
- Aholkularitza juridikoa.
- Errehabilitazio psikosozialeko zentruak.
- Komunitatean autonomiaz moldatzeko laguntza-programa.
- Sentsibilizazio kanpaina: Urtero hitzaldiak, tailerrak, zine zikloak, lasterketa solidarioa, zunbatoia etab. antolatzen ditugu.
- Tutoretzapeko etxebizitzak.
- Aisia eta denbora libreko zentroa.
- Karabeleko ekonekazaritza etxaldea.

helbidea: Urkizu pasealekua, 9 behea
telefonoa: 943 474337
e-maila: agifes@agifes.org
webgunea: www.agifes.org
sare sozialak: www.facebook.com/agifes
 www.twitter.com/agifes
 youtube.com/agifestv
harremanetarako: Veronica



Itsasne Gallastegi, Eibarko zentruko psikologoa.

Lana aurkitzea lana da, denbora eta ardura eskaini behar diozun jarduera. Lana bera baino astunagoa batzuetan, hurrengo egunak eskainiko duenaren ezjakintasunak sortutako egonezinaren ondorioz. Egoera horri aurrea hartu eta lanaren bidean jartzeko, Haudalan taldea osatu dute Eibarko 16 kidek, ekimen eta ilusioz lan merkatura itzultzeko asmoarekin.

Neguko goiz eguzkitsua da, udaberria izango balitz bezala. Eibarko kaleak bizirik daude, eguzki izpiek ematen duten energiaren poderioz, neguak eskainitako menia eskertuz. Markeskua jauregiko gela batean ere nabari da energia hori. Ez da eguzkirik, baina han batzen direnek sortzen dute giro berezia. Haudalan taldeko kideak batzen dira han.

Urte berriarekin hasi zuten euren jarduna Haudalanekoek, urtarrilaren 9an, eta datorren astean amaituko dute programa ofiziala. *“Oso motza egin zaigu”, diote, “baina gure kabuz proiektuarekin aurrera jarraitzeko asmoa daukagu”*. Denbora honi zukua ateratzen saiatu dira, modu pertsonalean zein profesionalean garatzeko lan egin dute eta, hazi hori landatu eta ureztatu ostean, *“fruituak jasotzeko sasoiak heldu da”*, hau da, lan mundura bueltatzea.

Profil anitz, helburu bakarra

Erdi eta goi-mailako ikasketak eta lan esperientzia zabala duten kideek osatzen dute Haudalan. Profil anitzeko profesionalak batzen dira bertan, *“baina denak helburu bakarrarekin, lan munduan berriz sartzea”*.

Ez dira iraupen luzeko langabetuak, *“batzuk orain dela gutxira arte lanean ibili gara”,* eta Eibarko Udalak eta Debege-sak martxan jarritako ekimen honen aurretik ere *“aktibo ibili gara”*. Erakunde bi hauek sortutako Zu Zeu Gidari programaren barruan jaio da Haudalan, eta talde lanean helburu pertsonalak lortzeko bidean dira.

Daiteke Gizarte Aholkularitzaren gidaritzapean, *“XXI. mendeko lan munduan trebatzeko tresnak landu ditugu”*. Konpetentziak, trebetasunak eta gaitasunak garatu dituzte, *“eta taldean lan egin, besteengandik ikasi eta sinergiak sortzeko balio izan digu esperientzia honek”*. Euren aipatzen duten bezala, *“bat gehi bat ez dira bi”*.



Urteetako lan esperientziaren ostean, hainbat kiderentzat berria da lan bilaketan murgiltzea eta ikusi ahal izan dute gauzak asko aldatu direla. *“Enpresek gaur egun eskatzen dutena ezagutu dugu eta gu geu ere horretara egokitu gara”*. Norberaren ezagutza prozesutik igaro ostean, barruak biluztu eta jantzi berrituarekin ekin diote lanera itzultzeko ekintzari.

Koldo Saratxaga eta Pablo Aretxabalaren hitzaldia

Fruituak batzeko ordua heldu da Haudalaneko kideentzat, baina eurek ere eskaini nahi izan diete mokadutxo tentagarria inguruko enpresari, erakunde eta eragileei. Izan ere, martxoaren 2an K2K Emocionando taldeko Koldo Saratxaga eta Pablo Aretxabalaren hitzaldia antolatu dute Armeria Esko-

lako Aretu Nagusian goizeko 11:00etan. Sarrera libre da, *“eta enpresa munduko arduradunak gonbidatu nahi ditugu, batez ere, 2016ko euskal industria enpresen jardueraren inguruan egindako azterketaren ondorioak eta 2017ra begira dituzten erronkak azalduko dituztelako bertan”*.

Ibilbide luze eta arrakastatsuko enpresa gizona da Koldo Saratxaga, Irizar enpresa mundu mailako enpresa berritzaileen artean kokatzea lortu zuena. *“Aldeko eta kontrako iritziak sortzen ditu”,* diote Haudalanekoek, baina enpresa jardueran *“erlazio estilo berria”* ezarri du eta *“gogotsu gaude kontaktuko duena entzuteko”*.

Hitzaldira joan nahi duenak mezu elektronikoa bidali beharko du haudalan@gmail.com helbidera edo www.haudalan.com webgunean izena eman.

Euskal Herriko txori eta hegaztiek habia estreinatu berri dute:

txoriak.eus webgunea.

Orain dela 20 urte hasi zen Asier Sarasua txorien habia prestatzen eta, garatzen jarraitzeko asmoa badu ere, 100 bat txori-espezien fitxak utzi ditu sarean eskuragai. 1996an 'Eibarko Hegaztiak' liburua argitaratu zuen eta hortik abiatu zen orain argia ikusi duen proiektua. Berak dioen bezala, kondentatuta zegoen horrelako lan bat egitera.



**ASIER
SARASUA**

(biologoa eta filologoa):



“Txori batek 15 izen ezberdin izan ditzake euskeraz lasai”

– *Izenak nahiko garbi uzten du, baina zer da txoriak.eus webgunean aurkituko duguna?*

Nire asmoa Euskal Herrian bizi diren txorien inguruko informazioa ematea zen eta proiektuak bi adar ditu. Batetik, alde ornitologiko edo naturalistikoa; eta bestetik, ornitonimiaren aldea, hau da, txorien izenak. Proiektuaren lehenengo fasean bigarren alde honi eman diot garrantzi handiagoa. Hor aurkituko ditugu azken urteetan batu ditudan txori-espezie bakoitzaren izenak Euskal Herrian. Hau da, txori bakoitzari eskualde, euskalki edo hizkera bakoitzean zelan esaten zaion. Txori batek 8, 10 edo 15 izen ezberdin izan ditzake, lasai. Bestalde, nahiko galzorian dauden izenak dira, jende nagusiak ondo ezagutzen dituelako, baina gazteek ez. Alde batetik, transmisio naturalistikoa galdu delako; eta bestetik, galera linguistikoa egon delako. Azken 40 urteetan estandarizatu edo normalizatu egin da euskera, batu egin da, eta txoriak zituen 8 izenetatik, gaur egun liburu guztietan bakarria erabiltzen da.

– *Zenbat txori-espezie batu dituzu?*

100 fitxa aurkeztu ditut. Txori-izenak ere, jendearentzat ezagunak direnak batu ditut. Nire kalkuluen arabera, Euskal He-

rriko txori-espezie arrunt edo erraz topatzen direnak 200 bat dira.

– *Txoriez gain, txoritokiak ere jaso dituzu.*

Ornitologia eta txorizaleen mundua asko zabaldu da Euskal Herrian azken 20 urteetan. Jende gehienarentzat ezezaguna da, baina ornitologo eta txorizale talde nahiko zabala dago. Hala ere, komunitate horrek erderaz funtzionatzen du batez ere eta interneten topatu daitekeen informazio erderaz dago gehienbat. Orduan, informazio ornitologikoa interneten euskeraz egoteko ekarpena egiten saiatu naiz. Horregatik, txoritokiak izeneko atala gehitu dut eta, bertan, Euskal Herrian eta inguruan dauden txoriak ikusteko 20 bat toki jaso ditut.

– *Urdaibai Bird Center eta antzekoek ornitologiaren aldeko apustua dagoela erakusten dute?*

Euskal Herrian txoriak ikusteko toki garrantzitsuak ditugu. Batetik, Urdaibai. Aran-

zadik Bird Centerra jarri du martxan bertan eta nazioarteko sare batean sartu da. Gainera, Urdaibai txorientzat eta txoriak ikusteko toki garrantzitsua da. Bestetik, Txingudi daukagu. Oso babes txikia eta oso inguru urbanizatua dauka, eta hala ere, hegaztientzat oso toki garrantzitsua da. Gero, Araban, Salburuan parkea dago, Ataria; eta Nafarroan, Pitillasko hezegunea eta Erribera ingurua oso garrantzitsuak dira. Hauxez gain, badaude beste toki txiki pila bat.

– *Nahikoa babesten dira txoriak eta euren ingurunea?*

Natura, berez, ez da lehenetasuna erakunde eta administrazioentzat. Adibide dira lehen aipatutako guneak. Urdaibai berak ez du babes alturik, Biosferaren Erreserbaren figura du bakarrik eta oso leku humanizatua da. Berdin pasatzen da Txingudirekin ere, parke ekologikoaren erdian atletismo pistak, alboan trenbidea eta beste aldean aeroportua dituelako. Euskal Herriak oso dentsitate handia dauka eta politikarien lehenetasuna ez da natura. Burgo-sera, Araba hegoaldera edo Nafarroa erdialdera joatea nahikoa da askoz ere txori gehiago ikusteko, eta ez da babes edo kontzientzia gehiago dagoelako, baizik eta ez dagoelako gizakiaren hainbeste presentziarik. Natura piztu egiten da horrela.

“Natura ez da lehenetasuna erakunde eta administrazioentzat”

– 1996an ‘Eibarko Hegaztia’ liburua argitaratu zenuen. Proiektu honen aitzindaria?

Sasoi horretan pare bat proiektutan ibili nintzen. Batetik, aipatutako liburua gauzatzeko; eta bestetik, Eibarko baserrietan bertako ondare etnolinguistikoa jasotzen. Nik biologia ikasi nuen eta liburuetan txorien izen batzuk ikasi nituen, baina konturatu nintzen izen horiek Eibarko baserriarrentzat ezezagunak zirela eta eurek erabilitako izenak ez nituela sekula liburu batean ikusi. Liburuetan agertzen ez zen eta galzorian zegoen ondarea zegoela ikusi nuen, eta horrela hasi zen proiektua.

– Hasieratik zenuen helburua bete duzu ala helburua moldatzen joan zara?

Ez nintzen zenbait izen jasotzeko asmoarekin hasi. Lehenik Eibarkoak jaso nituen, gero ingurukoak eta gutxika zabaldu nuen esparrua, helburu finko barik.

– 20 urte hauetan aldaketak egon dira hegaztien inguruan Euskal Herrian?

Orain dela 30 bat urte hasi nintzen txorien munduan eta igartzen dut txori batzuk gutxiago eta beste batzuk gehiago ikusten direla. Lehen gizakiak ehizatzen zituen

hainbat espezie ugartu egin dira orain, baina izan dutelako. Ostera, txori espezie askoren presentzia asko jaitsi da, laborantza eta nekazaritzarekin zerikusia dutenak, batez ere. Enararen adibidea nabaria da. Lehen baserri guztietan zeuden, baina orain baserrietan ez dago ganadurik, beraz, enararik ere ez. Bestetik, itsas-hegaztien %75 desagertu da azken 30 urteetan. Demaseko zifra da. Atzera joanda, elkarrizke-



Leire
Kareaga

“Txori espezie askoren presentzia asko jaitsi da azken 30 urteetan”

tatu ditudan 200 lekuko arabera, 60-80 urtetik hona demaseko aldea ikusten dute. Txoriekin zerua beltz jartzen zela diote. Gehiegikeria da agian, baina lehen txori-espezie batzuen multzo handiak egoten ziren eta orain ale solteak ikusten dira. Txorien bizitzeko habitata suntsitzen gaudelako gertatzen da hori eta, kasu batzuetan, ehizatgatik. Usatortola, adibidez, ehizatzen jarraitzen da nahiz eta demaseko beherakada izan duen azken 40 urteetan.

– Zer sentitu duzu hainbeste urteren ostean zure txoria hegan ikustean?

Badakit kontu hau nahiko minoritarioa dela, baina sarean dagoela ikustea, eta txorien izenak batzen eta txorien inguruko informazioa zabaltzen ekarpena egin dudala ikustea pozgarria da. Oso harrera ona eduki du, zoriondu eta eskertu egin nautte, sare sozialetan asko elkarbanatu da eta pozik nago erantzunarekin.

martxoak 8, 9 eta 10

III. GILDA
LEHIAKETA

Euskeraz!
primeran.



PARTE-HARTZAILEAK:

AFRIKAN HARITZA - AMETSA - ARKUPE - ASTELENA - BACOLEKU - BAISI - BIRJIÑAPE - BOULEVARD - CEPA - CHIC - GURIDI - IPUR - JANTAEDAN - KONTENT - KOSKOR - KULTU - LAU BIDE - MAIXA - NUEVO - O'JAYS - ONGI ETORRI - SLOW - SUTONDO ISASI - SUTONDO LABADEROKUA - VALLE

SARI BI

1 Herritarren saria: **150€**

Tabernetan bozketarako kutxak eta orriak egongo dira.

2 Epaimahaiaren saria: **150€**

EPAIMAHAIKIDEAK:

Mireia Alonso - Josu Mugerza - Ruben Etxaniz

Bozketan parte hartzen dutenen artean
KANTABRIA JATETXEAN MENU BEREZIA
zozketatuko da **BI LAGUNENTZAT**.
Animatu zaitetz eta parte hartu!!!

Antolatzailea



Euskara Elkarte

Laguntzaileak



Gipuzkoako
Foru Aldundia

Aurreko astian aurkeztu eben Andretxean Emakumien Nazioarteko Egunaren harira Berdintasun Zerbitzua-Andretxeak, ...eta kitto! Euskara Elkarteak eta Arrate Kultur Elkarteak, Emakumien Mahaixaren laguntasunarekin preparau daberen programia.

Emakumia izateko artea




Aurtengo egitaraua osatzerako orduan ardatza "Emakumeak eta Artea" gaia izan da eta aurkezpenian hori aukeratzera eruan dittuen arrazoieta-ko batzuk aittatu zittuen antolatzailliak: *"Artearen munduan, bizitzako beste esparru askotan pasatzen dan moduan, andrazkuak bigarren planuan egon dira beti, artista famosuen artian ixa danak gizonak dira eta oso andra gitxik lortu dabe artetik bizitzia edo euren izena ezaguna izatia. Horrekin batera, artea kasu askotan erreibindikaziñorako bidia be izan da. Gaur egunian be, ikus-entzunezkuetan batez be, erreibindikaziñorako funziño horrek gero eta indar gehixago hartzen dihardu".*

Horregaittik, aurtengo programaziñua preparatzerakuan arreta berezixa eskindu detse arte adierazpen diferentieri eta horrerri lotutako jarduerak beste batzuetan baiño pisu haundixagua izango dabe, Martxuaren 8rako irudittik bertatik hasitta. Izan be, aurten lehelengoz kartel lehiaketia antolatu dabe eta hain zuzen be lan irabazlia erabilliko dabe egitarauaren irudi modura. Horrekin batera, lehiaketara presentau dittuen lanekin erakusketia egitteko asmua

dake Portalean martxuaren 8tik 26ra bitartian eta bigarren erakusketa bat be antolatu dabe: martxuaren 3tik 12ra bittartian Topalekuan zabalik egongo dan "Emakumeak eta artea" izenekua.

Programaziñua **datorren astian, barixakuan** hasiko da, 19:00etatik aurrera Ines Bengoak (ahotsa) eta losu Lizarragak (musikaria) Topalekuan eskinduko daberen **"Hotzikara ipuin erotikoak"** helduendako ipuin musikatuarekin.



Flashmob-a Martxuaren 8rako

Martxuaren 8xan, barriz, kartel lehiaketako irabazliari **sarixa banatzeko ekitaldixa** egingo da Portaleko erakusketa gelan, 13:00ian, eta erakusketia be orduantxe inaugurauko dabe. Ondoren, animatzen diranendako bazkarixa be antolatu dabe (izen-erotia Andretxean) eta arratsalderako flashmoba (19:30xetan) eta alkarrataratzia (20:00etan) prestau dittue. Jarduera bixak Untzagan izango dira.

Programiak dakan nobedade nagusiña **martxuaren 12xan** egingo dan **Eibarko Genero Berdintasunaren Aldeko lehen Martxa** izango da. La Salle Azitaingo ikaslien eskutik sortu dan ekimenak "Denok martxan genero-berdintasunaren alde" goiburuari jarraituko detsa eta, ikasliekin batera, Emakumien Mahaixak, Klub Deportiboko Atletismo Taldia eta Berdintasun Zerbitzua-Andretxeak antolatu dabe, *"aurrerantzian be jarraipena izango daberen esperantzarekin"*. Herritar guzti-guztientzat zabalik egingo dan martxaren aurretik, 11:45ian batzen diran guztiekin argazkixa egingo dabe Untzagan eta martxia, barriz, 12:00xetan hasiko da: *"Edozeiñek egitte-*



PEDRO AZPIAZU ELIZBURU

I. urteurrena: 2016-II-22

ZURE irribarre eta samurtasuna betirako izango dira GURE ARTEAN.

— ETXEOEK —



Bost ikastaro eskinduko ditu Jabetze Eskoliak

Maiatzetik ekaiñera bittartian bost tailar edo ikastaro eskinduko ditue gurian, Emakumiendako Jabetze Eskolaren bittartez. Matrikulia egitteko Pegorara zein Andretxeara jua leike zuzenian (NANaren fotokopixia eruanda), martxuaren 1etik apirillaren 21era bittartian. Eibarren erroldatuta dagozen andrak 15 euro pagau biharko ditue eta bestiak, barriz, 20 euro. Informaziño gehixago bihar dabenak Andretxean (Zezenbide, 9) zuzenian galdetu leike edo, nahixago izanez gero, 943700828 telefonora deittu edo andretxea@gmail.com helbidera idatzi.

– BRIKOLAJE TAILARRA

Formatzaillia: Begoña Gonzalez.
Noiz: Maiatzak 4, 11, 18 eta 25 eta ekaiñak 1 (eguenak), 10:00/12:00 (10 ordu). **Nun:** Andretxean. **Hizkuntza:** Gazteleraz.
Brikolaje-mota bakotxaren oiñarritzko teoria (paretak, atiak, leihuak, altzarixak, entxufiak, txorrotak...), materixalak konpontzen eta birziklatutako materixalaz lan egitten ikasiko dabe.

ko moduko ibilbidia beteko dogu. Asmu ez da lasterketia edo horrelakorik egittia, ahalik eta jende gehixen batzia baiño, horregaittik jende guztia parte hartzera animatzia nahi dogu”.

Bardintasunaren aldeko martxa

Martxan parte hartzeko izen-emotia zabalik dago eta martxuaren 3ra arte egongo da izena emoteko aukeria, Andretxean (izena emotia duan izango da). Informaziño gehixagorako, Andretxearen webgubian begiratu, 943 70 08 28 telefono zenbakira deittu edo andretxea@gmail.com helbidera lasai idatzi leike. Handik egun gi-

– HOBETO BIZI IZATEKO ALDAKETAK KUDEATZEN IKASTEIA

Formatzaillia: Ana Baza. **Noiz:** Maiatzak 10, 17, 24 eta 31 (eguztenak), 18:00/20:00 (8 ordu). **Nun:** Andretxean. **Hizkuntza:** Gazteleraz.

Parte hartzen daben andrak euren bizitzetan gertatzen diran aldaketak modu egoki eta onuragarrixan kudeatzen ikasiko dabe.

– AHALMEN TRUKERAKO IKASTAROA

Formatzaillia: Inma Merino. **Noiz:** Maiatzak 8, 15, 22 eta 29 eta ekaiñak 5 eta 12 (astelehenak), 18:00/20:00 (12 ordu). **Nun:** Andretxean. **Hizkuntza:** Gazteleraz.

Gure ahalmenak balioesten ikasteko, emakume aktibo bezala ikusezin bihurtzen gaituen estereotipuak apurtzeko eta ezaguera-trukia bultzatzeko ikastarua izango da. Adin guztietarako egokixa.

– BIODANTZA TAILARRA: AHALDUNTZIA GORPUTZETIK ETA EMOZIÑOTIK

Formatzaillia: Rakel Ampudia. **Noiz:** Maiatzak 11, 18 eta 25 eta ekaiñak 8 eta 15 (eguenak), 15:30/18:00 (12'5 ordu). **Nun:** Portalean. **Hizkuntza:** Gazteleraz. *Gorputzaren lanketaren bidez ahalduntzia bultzatzeko eta sormena, segurtasuna, konfiantza eta emozioñuen kudeaketia garatzeko tresna izango da biodantza.*

– EROTISMUA ETA AUTOEZAGUTZA

Formatzaillia: Clara Wolfram. **Noiz:** Maiatzak 13, 20 eta 27 eta ekaiñak 3 (zapatuak) 10:00/13:30 (14 ordu). **Nun:** Portalean. **Hizkuntza:** Euskeraz. *Erotismuaren gaiñian ditugun pentsamenduak eta emozioñuak alkarrekin hausnartu eta aztertuko ditue, hainbat “genero aginduetatik” askatzeko. Eta alderdi erotikua esnatzeko ariketa praktikuak be egingo ditue, horrek eguneroko bizitzara eruan ahal izateko eta bakotxak bere burua hobeto ezagutzeko.*



txira, martxuaren 17xan, barriz, “King-Kong neska” bakarrizketia eskinduko dau Josune Montonek Portalean, 19:00-

etan euskeraz eta 20:30xetan gazteleraz. “King Kong neska” lana Virginie Despentes-en “Teoria King Kong” liburuaren hitzaurrian oiñarritzen da eta Iñaki Seguroiak euskaratu dau. Diñuenez, “ereduak haus-tent dituan ikuskizun umoretsua da. Emakumetasunaren proletariak egitten dau berba, ezarritako eredu jarraitzeko gauza ez dan emakume okerra izatia aldarrikatzen daben andrak. Proletariñuak diraneri zuzenduta dago, Barbie eta Kent bezalakuak izan ezin daben (edo igual izan nahi ez daben) andra-gizoneri. Gizon eta emakume perfektua izatiaren baloria ezbaian jartzen dituan ikuskizun urratzaillia da”.

PATXI SAN MIGUEL MILICUA “Kaskarren” (2017-II-18)



Bere aldeko MEZA ospatuko dugu domekan, hilaren 26an, San Andres parrokian, eguerdiko 12:00etan hasita.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak





Merkatu Plazia Errebalen beti

Herrixan Merkatu Plazia biharrezkua zala onartuta, 1884ko azaruaren 13ko saiuan Udalak San Esteban ermittia eta haren onduan zeguan hiltegia botatzia erabagi zeban horko orubian merkatu plazia eraikitzeko. Baiña azkenian ermittia behintzat ez eben bota. Handik bost urtera, 1889ko abuztuaren 1eko saiuan Maria Angela kaleko zubixaren gainian merkatu plazia eraikitzeko Castro Zabala Bilboko arkitekturen proiektua eta aurrekontua onartu ziran. Handik urtebetera, 1890ko iraillaren 4an egindako enkantian, lanok Antonio Muguruza errementarixari, Marcos Garaizabal arotzari eta Nicolas Goitia argiñari adjudikatu zeteszen. Behin biharrok eginda, 1891eko abenduaren 3an egindako saiuan Pedro Jose Astarbe obra-maisuak aurkeztutako eta Zabala arkitektuak baimendutako likidaziñua onartu zan. Obra guztiaren kostua 41.389 pezetakua izan zan.

Handik hamar urtera plazia txiki geratu zan eta 1901ian Udalak arkitektuari agindu zetsan hainbat lasterren aittatutako plazia haunditzeko proiektua aurkezteko. Ordurako San Esteban ermittia botata zeguan eta, merkatu barrixa egin tteko lanekin hasi aurretik, zaharra bota zeben. Holan eraiki nahi zan eraikiñak gomendagarria aurrikusten zan kokalekua izango zebalakuan. Gurrutxaga arkitektuak idatzitako proiektua 1907ko maiatzaren 20xan egindako saiuan onartu zan, lanok enkantera etara zittuen eta, azkenik, 1909ko erdialderako obrak amaította zeguazen. Gastuetako partida haundixenak honakua izan ziran: hargintzan, 40.540 pezeta; errementaritzan, igeltseritzan, iturgintzan eta pinturan, 40.392; postuak eraikitzen, 8.246; sarrerako atiak, 747; eta komunak, 8.350 pezeta.

Eraiki zan edifizio edarrak ondo baiño hobeto betetzen zittuan herriko agintarixen helburuak eta inauguraziñua be arranditsua izan zan. 1909ko ekaiñaren 22xan egin ziran ekitaldixetan Udal ordezkari guztiak hartu zeben parte, bestelako agintari, mediku, arkitektu eta hainbat gonbidatuekin batera; tartian izan zan Wenzeslao Orbea bera be. Eguerdixan banketia izan zan eta arratsalde hartan musikia nagusittu zan herrixan. Handik gitxira kontuan hartzeko beste lan batzuk egin ziran, eta aittatzekua da sotuan



1945ian amaítottako Merkatu Plazia. Ikusten denez, orduko espaloiak errepidia baiño zabalaguak ziran.

arraña saltzeko kokatu ziran postuak. Lan horretako likidaziñua 6.820 pezetara igo zan eta baita onartu 1911ko urtarrillaren 23ko saiuan.

Gerrarekin Merkatu Plaza barrixa

Eibarko erdiguneko eraikin gehixenak suntsitu zittuan gerriak eta, horren ondorixoz, 1940tik 1950erañoko tartian herrixa berreraikitzeko lanak egingo ziran, Dirección General de Regiones Devastadas deittutakuak onartutako urbanizaziño proiektuari jarraituta. Ortigosa arkitektuak zuzendutako laneri esker Merkatu barrixa eginda zeguan 1945erako, suhiltzailiendako kuartelillua eta Alhondigarekin batera. Urte horretako ekaiñaren 28xan, Justo Oria alkatia zala, laga zetsen Udalari usufuktuan Merkatu Plazia eta berari agindu eraikiña zaintzia eta modu onian mantentzia.

1961ian beste planta bat egin zan Merkatu Plaziarri erantsitta zeguan pabilloian, suhiltzailien parkiak erabiltzeko. Lanok Gabriel Muriasi emon jakozen. 1965ian, bestalde, Merkatu Plazaren fatxadak barritu eta dekoratu ziran eta, horrekin batera, pabimentaziño eta inpermeabilizaziño lanak egin ziran, dan-danak Hermengildo Bracons udal arkitekturen agindupian. Plazia usufuktuan laga eta gero, estatuko Arkitekturako Zuzendaritza Nagusixak eraikiña be lagako zetsan Udalari eta azken honek onartu 1971eko urtarrillaren 27xan.




JESUS GUTIERREZ
historialaria

Victor Eusa, Coliseoko arkitektoa baino gehiago

Eibarko Coliseoa 1947an proiektatu zen zine eta antzerki areto moduan eta 1949an inauguratuko zen, 1987an bere atea itxi aurretik. Handik hogei urtera, 2007an, zabalduko zen berriro, oraingoan udal instalazio moduan.

Coliseoa gerra osteko Eibarko berreraiketaren proiektuan sartu zen, eta bonbardaketek gehien kaltetutako ingurunean zegoen; Errebaleko tarte horretan egon zelako kokatuta Agustindar Errekoletoen komentua, hainbat batailoen ostatu gune izango zena. Esparru hori guztiz hondatuta geratu zen eta bertan eraikiko ziren, gaur egun ikusi ditzakegun etxe guztiekin batera, gure hiriak izan dituen eraikin enblematikoenetako bi: gaur egun desagertuta dagoen merkatu plaza, 1945ean inauguratutakoa, eta aipatutako Coliseoa.

Victor Eusa iruñarra izan zen proiektuaren arduraduna. Bere lan nagusiak Iruñean bertan egin zituen: Misericordia Etxea, Pauldarren eliza, Eskolapioen Ikastetxea, Seminarioa, San Juan de Dios Ospitala, Eslava Kasinoa... Geroago Udal eta Diputazioko arkitektoa izan zen, eta parte hartu zuen Bigarren Zabalgunearen eraikuntzan, hiria handitzeko hartutako neurri garrantzitsuan. 1936ko uztailean Nafarroako Gerrako Karlisten Bartzorde Nagusiko kide izendatu zuten. Batza horrek Erresuma Zaharreko errepresio ankerra gidatu zuen, 3.000 lagunetik gora fusilatzen agindua emanez. Sarkasmoa dirudi, baina kolpistek birrindutako Errebalen handik urte gutxira Nafarroako fusilamenduen arduradun nagusienetako batek Eibarko erdigunean gaur egun gure eraikin enblematikoenetako dena jasotzeko ardura nagusia izan zuen.





Etxeak zure esku

Inmobiliarien gehigarria

Eibarren gaur egun daukagun etxebizitzaren eskaintza oso zabala da. Bigarren eskuko etxebizitza zein berria nahi izanez gero, herrian ditugun inbiliarrietara jotzea besterik ez daukagu. Horietan diharduten profesionalak behar dugun informazio guztia emango digute: etxebizitzaren kokapena, orientazioa, metro karratuak, ezaugarriak, zein egoeratan dagoen, prezioa...

Eskuartean daukagun gehigarri hau lagungarri izango zaizuela uste dugu. Eta informazio gehiago nahi izanez gero, konpromisorik gabe joan zaitezke sektore honetako adituengana: zeuen premiei erantzuteko prest egongo dira.




www.aukera-inmobiliaria.com
943 12 13 95 Bidebarrieta 29



Egazelai. Eibar Ref. 1058

Babes ofizialeko etxebizitzak.
3 logela 152.000 €-tik. 2 logela 127.000 €-tik.
Denak garaje eta trastelekuarekin.



Iparragirre. Eibar Ref. 957

Babes ofizialeko etxebizitzak.
3 logela 159.600 €-tik. 2 logela 121.100 €-tik.
Denak garaje eta trastelekuarekin.




Abontza. Eibar Ref. 1029

3 logela eta 2 komun. Garajea aukeran.
Igogailua eta kalefakzioa.
252.000 €.



Ego-Gain. Eibar Ref. 976

Terraza eguzkitsua.
2009koa. Garajea aukeran.
2 logela eta 2 komun. 265.000 €.



Urki. Eibar Ref. 1008

Gutziz berritua. 2 logela.
Igogailua eta kalefakzioa.
135.000 €.



Legarre. Eibar Ref. 1037

3 logela. Paseo berriaren alboan.
Kalefakzioa, igogailua eta trastelekua.
139.000 €.



Barakaldo 155.000 €

2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kanpora begira eta igogailua.




Barrena 125.000 €

2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Berriztua. Igogailua eta kalefakzioa.




Isasi 150.000 €

2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Egoera onean. Kalefakzioa eta igogailua.



Romualdo Galdos 185.000 €

3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Egoera onean. Trasteroa. Igogailua kaleraino.



Errebal **Galdetu**

125 m². 4 logela, egongela-jangela, sukalde-jangela eta bi komun. Igogailua, trasteroa eta kalefakzioa.



Urkizuko dorrea 230.000 €

3 logela, egongela, sukalde-jangela eta bi komun. Egoera onean. Garajea aukeran.



Romualdo Galdos 150.000 €

3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Kalefakzioa, trasteroa eta igogailua.



Julian Etxebarria **Galdetu**

100 m². Berrizteko. Igogailua eta kalefakzioa.



T. Etxebarria **Galdetu**

2 logela, komuna, sukalde-egongela. Berriztua. Igogailua eta kalefakzioa.

GARAJEAK

Salmentan eta alokairuan.
San Pio, Abontza, Aizarna torrea, San Juan, Legarre...



Santaiñes 155.000 €

3 logela, sukalde-egongela, komuna eta despentsa. Berriztua. Igogailua. Altua eta eguzkitsua.



Urtzaile (Jata) 230.000 €

Duplexa. 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Erdi-berria. 2 garaje.



Bidebarrieta (lokala) **Galdetu**

Lokal komertziala alokagai. 90 m². Egoera ezin hobea. Informazio pertsonala.




T. Etxebarria **Galdetu**

2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. Igogailua.



Santaiñes 90.000 €

3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Pisu bajua. Kalefakzioa.




Barakaldo 120.000 €

2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Konpontzeko. Kanpora begira eta igogailua.



Milaflores 70.000 €

3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Konpontzeko. Terrazarekin.



Bidebarrieta 210.000 €

3 logela, egongela-jangela, sukaldea eta bi komun. Igogailua eta kalefakzioa. Erdi-berria.



Toribio Etxebarria, 1
943 20 03 58
fincas@euki.com
www.euki.com

- Gestio inmobiliarioa:** alokairuak, erosketak, salmentak, tasazioak, kontratuak...
- Galdetu zure etxebizitzaren Finantziatorako Bidea:** mailegu hipotekarioak, pertsonalak...
- Informazio Pertsonalizatua**

LOKAL KOMERTZIALAK ETA INDUSTRIALAK

Salmentan eta alokairuan.
Errebal, Fermin Calbeton, Otaola, Amaña...



Fermin Calbeton 60.000 €
 94m²ko azalera. Alokatzeko ezin hobea.



Bidebarrieta 175.000 €
 85 m²ko azalera.



Amaña 95.000 €
 Oso eguzkitsua.



Itarkale 185.000 €
 Konpontzeko. Azalera: 107 m². Kalefakzioa eta igogailua.



Karmen Kalea 180.000 €
 Atiko polita. 3 terrazarekin. Kalefakzioa eta igogailua.



Arratebide 157.000 €
 Oso eguzkitsua. 3 logela.



Barrena 69.000 €
 Azken pisua. Terraza izugarria.



T. Etxebarria Galdetu
 Guztiz berriztua. 80 m². Igogailua kaleraino.



Muzategi Galdetu
 Erdi-berria. 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Garajea aukeran.



Muzategi 130.000 €
 Azalera: 87 m². Trasteroarekin.



Untzaga plaza Galdetu
 Konpontzeko.



Urkizu 80.000 €
 Igogailua kaleraino.




Ego gain Galdetu
 Estreinatzeko. 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea balkoi handiarekin.



Arragueta 165.000 €
 120 m²ko azalera. Trasteroarekin. Konpontzeko. Igogailua kaleraino.



Ubitxa 138.000 €
 Apartekoa. 2 logela. Igogailua.



Urtzaile 170.000 €
 Etxebizitza handia. Kalefakzioa eta igogailua kaleraino.



Untzaga 159.000 €
 Estreinatzeko. 3 logela, bainu-gela, komuna eta sukalde-jangela.




Txonta 170.000 €
 Apartekoa. 3 logela, bainu-gela, komuna, egongela eta sukaldea. Igogailua kaleraino. Kalefakzioa.




Urki 78.000 €
 Pisu altuak. Bistak Eibarrera. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Igogailua.




Urkizu 138.000 €-tik aurrera
 Hainbat etxebizitza. 3 eta 4 logela. Orientazio desberdinak.



Errekatxu 80.000 €-tik aurrera
 Hainbat etxebizitza, igogailuarekin eta igogailurik gabe.



Sansaburu 73.000 €-tik aurrera
 Hainbat etxebizitza igogailuarekin eta igogailurik gabe.



Julian Etxebarria Galdetu
 Pisu altua. Oso eguzkitsua. 4 logela.



San Juan 265.000 €
 Erdialdean. 108 m².



Sostoa 190.000 €
 Azken pisua. 3 logela, berriztua. Igogailua eta kalefakzioa. Garaje bikoitza aukeran.



etxeak
zure esku

Inmobiliarien gehigarria

dp donpiso
FIDATU ZAITEZ PROFESIONALETAN BAKARRIK

Isasi, 16
EIBAR

M. Valdespina, 12
ERMUA

www.donpiso.com

**Zure etxea saltzeko
modurik azkar, errez
eta eraginkorrena**

donpiso@donpisoibar.com

943 82 05 10

618 769 839

HURRENGO ERAIKUNTZA

UZTARRI ETXEAK

11 Kalitatezko etxebizitza Elgoibarren



2 LOGELA 120.000tik AURRERA

3 LOGELA 227.000tik AURRERA



salmenta

943 741 528

www.bikun-eraikuntzak.com

finantzaketa



Arragueta, 2 bis B-behea
943 20 08 60

agencia
inmobiliaria

Juaristi

A.P.I.: Rosa Juaristi

- salerosketak
- errentamenduak
- balioztatzeak

rosa@inmobiliariajuaristi.com

www.inmobiliariajuaristi.com

HIGIEZINAK
ARREGI
INMOBILIARIA

Errebal, 20

Tel./Faxa. 943 203 333

Mobila. 656 766 344

www.inmoarregi.com

IbaiOndo
inmobiliaria



Bidebarrieta, 24 behea

Tel. 943 201213

www.inmoibaiondo.com

ibaiondo@inmoibaiondo.com



ARMAGIN 127.000 €

3 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea eta komuna. Kalefakzioa. Guztiz jantzia.



BIDEBARRIETA 183.000 €

3 logelako etxebizitza, 2 komun, egongela-jangela ederra. Kalefakzioa. Igogailua. Leiho handiak. Guztiz berriztua.



ARANE 210.000 €

Eraikuntza berria. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Igogailua. Kalefakzioa. Guztiz jantzia.



LEGARRE GAIN 185.000 €

3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kalefakzioa. Balkoia. Eremu komun berriztuak. Guztiz jantzia.



URKIZU 240.000 €

4 logela, egongela-jangela, sukaldea eta bi komun. Igogailua eta kalefakzioa. Guztiz jantzia. Garajearekin.



EIBARKO TXIKITO 160.000 €

2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Guztiz jantzia eta berriztua. Igogailua eta kalefakzioa. Trasteroa. Eremu komun berriztuak.



IFAR KALE 157.000 €

2 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea eta komuna. Igogailua eta kalefakzioa. Guztiz berriztua eta jantzia.



KARMEN 200.000 €

3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Igogailua eta kalefakzioa. 3 terraza. Guztiz jantzia.



UBITXA 80.000 €

2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Igogailua eta kalefakzioa. Guztiz jantzia eta berriztua. Toki ona.



URKI 150.000 €

2 logela, egongela-sukaldea-jangela eta komuna. Igogailua eta kalefakzioa. Guztiz jantzia.

Junior mailako Udaberri Saria jokatu da domeka goizean

Eibarko Txirrindulari Elkarteak antolatzen duen urteko egutegiko lehen proba jokatu da etzi goizean. Junior nazionalen mailako 39. Udaberri lasterketa izango da jokoan, Eibarren hasi eta Eibarren amaitzeko (Plaza Barrian). Probak 78 kilometro izango ditu, gutxi gorabehera bi ordutan osatuko direnak. 09:45ean irtengo da tropela Untzagatik eta, Bergaraino joan ondoren, handik bueltatu eta kostaldera joko dute txirrindulariek, Ondarrutik hona San Miguel gaina gainditzeko. 11:45 inguruan aurrikusten da helmugaratzen hasiko direla.



Jainagak marka berria egin du

Eibarko jaurtitzaileren progresioak ez du mugarik eta txarto ohituta gaitu dagoeneko, parte hartzen duen proba bakoitzean marka egiten duelako. Aurreko domekan Getxon jokatuak jaurtiketa luzeen Euskadiko txapelketan aurretik ere berea zen Gipuzkoako marka hobetu zuen jabalinarekin, aurrekoa lau metroan gainditu eta 74,89an lagatzeko. Jainagak metro batera du Espainiako promesa mailako marka (Nico Quijera nafarraren esku, 75,86 metroekin) eta ez askoz urrutirago Alejandro Garcia Euskadiko marka absolutua ere (Alejandro Garciak 1999an egindako 76,22ko jaurtiketa).



Aguiñaspik babesten du Erregionaleko Urki taldea.



Ekainaren 1ean egingo dituzte Eibar FTko lehendakaritzarako bozak

Orain dela hilabete osatutako Hauteskunde Prozesuaren Batzorde Antolatzailak herenegun aurkeztu zuen hauteskundeak egiteko ibilbidea. Jose Miguel Fiallegas eta Jon Ander Ulazia kontseilariak eta Patricia Rodriguez klubeko zuzendari kudeatzaileak osatzen dute batzorde hori. Eibarren historian lehenengoz, lehendakaritzarako hauteskundeak egingo dira aurten. Ekainaren 1ean izango dira eta 11.000 akziodunek izango dute boza emateko eskubidea. Hautagaitzak aurkezteko epea, aldiz, martxoaren 24ra artekoa izango da. Egungo zuzendaritzak hautagaitza bat aurkeztea espero da, eta ikusteko dago beste norbait aurkeztuko den ala ez.

Malaga bihar Ipuruan eta Anoetara bisita martitzenean

Lau egunetan bi partidu izango ditu Mendilibarren taldeak. Bihar, 20:45ean hasita, Malaga hartuko du Ipuruan; iaz Eibarren jokatu zuen Kekoren taldeak oraindik ez du partidurik irabazi etxetik kanpo. Bestalde, martitzenean, hilaren 28an, Anoetan jokatu du Eibarrek 19:30ean hasiko den partiduan. Premier Bidaiek hiriburura joateko autobusak antolatu ditu, partidurako sarrera barne.

Erregional mailako Urkik lider jarraitzen du Kopa torneoan

1. Erregional mailako Kopa torneoako bigarren multzoan, Aguiñaspik babesten duen Eibarko taldeak 1-0 irabazi zion azken asteburuan Urolari eta hiru puntuko tarte ireki du Aloña Mendi sailkapeneko bigarrenarekiko. Maila berean, baina igoera fasea jokatzeko diharduen Eibartarrak taldeak, bestalde, 3-0 galdu zuen Errenterian Touring-ekin eta fase berri honetako lehen garaipena noiz lortuko jarraitzen du. Beste maila bat gora eginda, Gorengoan mailan, Eibar Urko 4. da sailkapenean, azken jardunaldia Zestoari 2-1 Unben irabazi ondoren.

MANOLO MAGRO ALVAREZ

6. URTEURRENA (2011-II-26)

ZURE IZARRARI
begira jarraitzen dugu

ETXEOAK



Mendi Astea Hilabetekoa bihurtu dute aurten Mendi Batzordekoek

Eibarko Klub Deportiboko Mendi Batzordeko partaideek hilabete osoko egitaraua osatu dute aurten martxora. Aurreko urteotan aste ezin beteagoan mendizaleei aurkezten zitzaien programazioa "oraingoan denboran zabaldu eta modu lasaigoan" eskaintzea erabaki dute. Berehala, datorren asteko eguazten eta eguenean izango dira lehen ekitaldiak, ohikoa bihurtu den Bilboko Mendi Film Festivaleko proiektio onenekin. Coliseoan izango dira emanaldiak, egun bietan 19:00etan hasita, eta sarrerak 5 euroko prezioa du. Hilaren 1ean "E.B.C. 5.300 m",



Sebastian Alvaro Portalean izango da martxoaren 7an.

"Boys in the Bugs" eta "Jean Troillet, toujours aventurier" filmak eskainiko dira. Lehen biek 15 eta 18 minutuko iraupena izango dute eta azkena izango da luzeena, "ia ordubete irauten duelako, 54 minutu". Hurrengo egunean, hilaren 2an, "Annapurna III - Unclimbed", "Dodo's Delight" eta "Freedom Under Load" proiektatuko dira. Kasu horretan pelikulek 12, 28 eta 58 minutuko iraupena izango dute.

Hurrengo ekitaldia martxoaren 5ean, domekan, izango da egun horretan egingo den neguko trailarekin. Aukera hori eta martxoaren 25ean egingo den eskalada topaketa Deporrek mendi batzordekoek "mendian eskalatzen eta korrika egiten hasi nahi dutenentzat" prezeski prestatutakoak dira. "Taldean eta giro onean izango gara. Horregatik, animatu nahi zaituztegu Deporren izena ematera", diote antolatzailleek. Trail erraz hori 08:30ean hasiko da Deporretik.



Mendi Tourrek Bilbao Mendi Film Festivaleko onena eskaintzen du. Datorren asteko eguaztenean eta eguenean sei pelikula proiektatuko dira guztira.

Hilaren 7an "Una vida al filo" hitzaldia eskainiko du Portalean Sebastian Alvaro mendizale eta abenturazaleak, telebistan eskainitako programetatik ospea hartu duena. Hitzaldi hori 19:00etan hasiko da, hurrengo martitzenean. Handik astebetera, hilaren 14an, tailerra izango da Klub Deportiboan bertan. "Lehen sorospenak mendian" eskainiko du Javi Bayok, Deporrekokin mendi irteeretan aspalditik parte hartzen duen sendagile bilbotarrak; hori ere 19:00etan hasita.

Hurrengo bi asteetako mar-

titzenetan, eta aurrez aipatutako orduan, hau da, 19:00etan, egingo dira beste ekitaldiak. Hilaren 21ean "Aizkorri, neguko altxorra" hitzaldia eskainiko du Xabi Mujika "Smithyk" Portalean, "Gipuzkoaren bihotzean jasotzen den 1.500 metroko gailurrak eskaintzen dituen aukerak" jakinarazteko asmoz. Hilaren 25ean, zapatuan, aurrez aipatutako eskalada topaketa izango da Kultu tabernan, 09:00etan. Eta, amaitzeko, hilaren 28an Zaltoa Otadui sukaldaritza tailerra eskainiko du Klub Deportiboan, "Gosari osasuntsuen" inguruan.

aire garbiaren bila

Bizkaiko Biraren 5. etapa egingo dute martxoaren 4an

Datorren hilabeteko lehen etapak Bakio eta Plentzia lotuko ditu

Sukarrieta eta Bakio lotu zuen Biraren laugarren etapa ere arrakastatsua izan zen oso, eguraldi bikaina izateaz gain, irteerak 60 lagun bildu zituelako: "Gainera, horretarako inguruan dagoen autobus handiena ipini ziguten". Bosgarren etapa Bakion hasiko da eta Jata (598 m.) igoko dute, "Bizkaiko kostaldea ikusteko talaia ezinhobea". Ibilbide osoa mendi bizkar gainetik egingo dute, itsasoa lagun denbora guztian. Amaitu ere hondartzan egingo dute, Gorniz eta Plentzia bitartean. Goizeko 08:00etan irtengo dira autobus geltokitik eta arratsaldeko 19:00etan gutxi gorabehera itzuliko dira.



Irudian Sukarrieta-Bakio etapan parte hartu zuten mendizaleetako batzuk. Periko Iriondo

Irteeretan parte hartzeko Klub Deportiboko bulegoetan eman daiteke izena martitzen eta eguenean (19:30-20:30).

54 probetan hartuko dute parte Eibar Energia Hiria - Debabarrenako txirrindulariek

Bihar hasiko du denboraldia Eibarko Klub Deportiboko txirrindularitza taldeak, Zumaian jokatu den 23 urtetik azpikoendako elite mailako lasterketarekin. Oraingoan 13 txirrindulari izango ditu Eibar Energia Hiriak, euretako sei jubeniletatik datozenak. Taldeki berri guztiak azken denboraldian nabarmendu badira ere, oihartzun handiena David Organbidek lortuko zuen agian, Suitzan jokatuako pistako azken mundialetan brontzeko domina eskuratu baitzuen japoniar modalitatean. Tuterarra bada ere, bere sustriak hemen ditu Organbidek: familiakoak Eibartik Tuterara

joan ziren, lantegia tokiz aldatzarekin batera. Taldeak Gipuzkoako Diputazioaren laguntza izango du eta, trukean, nabarmen diren probintziako jubenil mailako txirrindulariak hartuko ditu. Guztira 54 probetan hartuko dute parte, Tekniker, CDR (bizikletak), Etxe On-do (erropa), Skoda (autoak) eta Ges (kaskoak) enpresen laguntzari esker.

Lau eibartar taldean

Ander Gutierrez, Iker Goikoetxea eta Osoro anaiak (Pello eta Txomin) dira taldeko eibartarrak. Eta honakoak dira eurekin taldea osatzen dutenak: Victor Cordon ermuarra, Beñat



Bollar elgoibartarra, Mikel Arregi antzuolarra, Ekaitz Txintxurreta oñatiarra, Mikel Mujika legazpiarra, Koldo Armendariz ordiziarra, Onditz Urruzmendi igeldoarra eta Iñigo Etxabe donostiara, lehen aipatutako Organbiderekin batera. Cordon eta Armendariz dira beteranoenak taldean, hiru-

garren urtea egingo dutelako eta 19tik 22 urtera artean dautenak, Pello Osoro kenduta (elite mailakoak 25 urte ditu). Talde teknikoari dagokionez, Juanjo Sebastianek jarraitzen du zuzendari lanetan, Galder Lasuenekin batera, eta Josu Iraeta da mekanikoa eta Pedro Juan Egaña masajista.



Osoro anaiak podiumean Reinosan jokatuako estatuko neguko triatloi txapelketan

Zapatuan Reinosan jokatuako Neguko Triatloi Trangowold Espainiako txapelketan, Deltecoko anaiek zilarrezko eta brontzeko dominak irabazi zituzten proba bikaina burutu ondoren. CERR Igualadako Joan Freixa izan zen irabazlea, batez ere bizikleta gainean egindako lanari esker. Antxintxiketan Ivan Caceres izan zen onena, podiumeko hiruren aurretik, baina bizikleta gainean Freixak aurrea

hartu zion eta Campoo gainean amaitu zen iraupen eski tartean Osorotarrek ere aurrea hartu zioten.

Bestalde, egun berean jokatuako Sospelako duatloian Delteco Eibar Triatloi Taldeak lau ordezkariarekin hartu zuen parte. Gonzalo Saezek 33. postuan amaitu zuen, Andoni Mayo 51. izan zen, Roberto Gartzia gertutik jarraitu zion (53.) eta Iñaki Kondek 180. postuan amaitu zuen.

Kalamuako ordezkariak erabat nagusitu ziren jiu-jitsu Espainiako Kopan

Hiru ordezkari izan zituen Kalamua judo klubak aurreko asteburuan Madrilen jokatuako junior mailako jiu-jitsu Espainiako Kopan eta, martxoaren 15etik 20ra arte Atenasen jokatu den Mundialerako azken testan zen proban, ezinhobeto moldatu ziren eibartarrak: Iker Martinezek urrezkoa bereganatu zuen Ne Wazan eta Borrokan, eta Nekane Muguruzak eta Arrate Jorgok urrezkoa jantzi zuten lepoan Ne Wazan eta zilarrezkoa Borroka modalitatean. Ezin arrakastatsua go, beraz, Julio Gallego teknikariaren aginduetara jardundako hiru kirolarien lana. Gallegok eta Manu Agirrek martxoaren 4/5eko asteburuan izango dute hurrengo erronka, oraingoan Na-



valcarneron jokatu den senior mailako Espainiako txapelketan, "han izango diren 10 jūdōkak zuzentzen".

Pilota Astelenan gaur eta domekan

Iribarria-Rezusta eta Artola-Albisu bikoteen arteko binakako txapelketako partidua izango da nagusia etziko jaialdian. Artola berriro bueltatuko da kantzetara. Aurretik Dario-Jaunarena vs Arteaga-Erasun lehia jokatu da eta, amaitzeko, Gorka-Merino vs Jaka-Irusta. Gaur, bestalde, afizionatu mailako hiru partidua hartuko ditu Astelenak 19:00-etatik aurrera. Benjamin mailako lagunartekoa izango da lehena, infantil mailakoa bigarrena eta, amaitzeko, Udaberri Torneoko helduena, Unamunzaga-Agirresaroberekin.

Jone De Castro (atleta)

«Nire helburua marka egitea izaten da proba guztietan»

Aurreko domekan Euskadiko Txapelketa eskuratu eta gogotsu ekingo dio asteburu honetan Espainiako Neguko Txapelketari Jone De Castrok. Inork baino luzeago bota zuen xabalina atleta eibartarrak Getxon eta Leonen antzera ibiltzea espero du. Bera pausuz pausu doa, baina ametsak ez dute mugarik.



– **Euskadiko txapelduna bilakatu zara asteburu honetan. Zorionak!**

Mila esker! Junior kategorian irabazi nuen eta absolutuan hirugarren izan nintzen.

– **Helburu horiekin joan zinen bertara?**

Nire helburua marka hobetzea izan da beti eta, hori hobetuz gero, Espainiako Txapelketan sartzeko marka hobetzea.

– **Zein marka da hori?**

Espainiako Txapelketan sartzeko minimoa, junior kategorian, 35 metro, baina oraindik ez dut lortu.

– **Zenbatekoa da zure marka onena?**

34,81 metro, beraz, 19 cm-tara nago.

– **Aurten egin duzu jubenetik juniorretara jauzia?**

Bai, eta badago aldea. Xabalinak, adibidez, 100 gramo gehiago pisatzen dute eta igartzen da aldea, baina ohitu naiz.

– **Xabalina jaurtiketan bakarrik ibiltzen zara edo baita beste disziplina batzuetan ere?**

Nire proba, berez, xabalina da; baina pisua, diskoa eta abar ere egiten ditut aldatzeko. Urte hasieran, adibidez, Getxon lau proba batzen dituen txapelketa egiten da: diskoa, xabalina, pisua eta mailua.

– **Zergatik zentratu zara xabalinan?**

Multikiroletan hasi nintzen atletismoa egiten eta proba guztietatik vortex jaurtiketan nabarmendu nintzen. Xabalinaren antza dauka. Beraz, xabalinarekin hasi nintzen, baina hasieran zalan-tzak nituen, ez zitzaidalako ondo irteten eta pisuarekin hobeto nenbiletako. Gero, pisua gaizki irteten hasi zitzaidanean xabalinarekin hasi nintzen berriz eta hor geratu nintzen. Orain jabalinan nago zentratuta.

– **Entrenamendu asko egiten dituzu?**

Astean 4 edo 5 aldiz entrenatzen dut orain, egunero 2 orduz. Astean 2 aldiz arlo teknikoa lantzen dut.

– **Nola moldatzen zara kirola eta ikasketak uztartzeko?**

Erdi-mailako modulua egin dut eta aurten praktikak egitea egokitzen zitzaidan. Amaitu ditut, beraz, orain entrenatzeko denbora nahikoa daukat.

– **Zein helburu dituzu denboraldi honetarako?**

Espainiako Txapelketara heltzea eta, gehien bat, nire marka hobetzea. Gero, zerbait irabazteko aukera badaukat, primeran!

– **Eta gerora begira?**

Munduko edo Europako Txapelketetan aritzea gustatuko litzaidake eta, no-la ez, Joko Olinpikoetan.

www.kolorlan.com

667 54 89 16

KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L.



Lehen jaunartzerako eta ezkontzetan erresak eramateko JANTZIAK

ume eta gazte
Kopina
moda

f kopinamoda

San Agustin, 3
943 204181



Frantziako unibertsitatetik bisitan energia berriztagarriak ezagutzeko

ENSGTI (École Nationale Supérieure en Génie des Technologies Industrielles) eskolako ikasleak Eibarren izan dira, Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolan bisitan. PYREN izeneko programaren barruan egindako bidaian, aurreko astean Paueko eta Aturriko Herrialdeetako Unibertsitateko ENSGTiko hamahiru ikasle eta bi iras-

kasle izan ziren eskolan bisitan, energia berriztagarriari eskaintako instalazioak ezagutzen. Horrekin batera, energia berriztagarriekin zerikusia duten laborategietan, energia eolikoaren eta fotovoltaikoaren alorrekoetan zein energia sare elektrikora egokitzekoetan praktikak egin zituzten.

Bidaia aprobetxatuta, Mutrikuko uhin-energia instalazioa ere bisitatu zuten. 2011ko uztailan zabaldu zuten hori uhinen energia baliatuta energia elektrikoa sortzen duen lehenen instalazio komertziala da Europa osoan.

PYREN programa diziplina anitzeko programa bat da, hirueleduna eta egoitza ugariakoa, eta helburu nagusizat mugaz gaindiko harremanak sustatzea dauka. Frantziako Goi Mailako Hezkuntza eta Ikerketa Ministerioak sustatzen du, IDEFI (etorkizuneko inbertsioak) programaren baitan eta Paueko eta Aturriko Herrialdeetako Unibertsitateak, Zaragozako Unibertsitateak, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak hartzen dute parte.



La Salle Azitaingo ikasleak Bartzelona eta Salamancan

Urtero bezala, La Salle Azitain ikastetxeko batxilergoko 2. mailako ikasleek hiru egun eman dituzte Bartzelonan. Bueltan azaldukoaren arabera, "bidaia luze samarra egin bazitzaigun ere, azkenean Zaragozan Pilargo basilika bisitatzeko geldialditxo bat egin eta handik zuzenean Bartzelonako hotelera ailegatu ginen. Hurrengo bi egunetan Bartzelonako hainbat toki esanguratsu ikusteko aukera izan genuen, oinez, autobusez nahiz itsasontziz eta, besteak beste, Gaudiren lanetan barrena murgildu ginen".



Batxilergo 2. mailakoak Bartzelonan.



Batxilergo 1. mailakoak Salamancan.

Batxilergoko 1. Mailakoak, berriz, Salamancan egon dira: "Aurretik Burgosen gelditu ginen eboluzioaren museoa eta katedrala bisitatzeko. Eta Salamancan, igela ikusteaz gain, goizean gida batekin txoko guztiak ikusi genituen (Maskorraren etxea, Unamunoren bizilekua, komentua...). Orokorrean bidaia aberasgarria izan da, oso hiri polita da, bisitatzeko bikaina. Eboluzioaren inguruan asko ikasi dugu, azken egunean Atapuercara joan ginen eta. Atapuercan, lehen gizakiaren arrastoak aurkitu zituzten, bertan sua egiten ikasi genuen antzina egiten zen bezala, eta nola bizi ziren aztertu genuen, txabolatxoak, ehizarako lehen materialak... Hainbat jarduera eginez ikasi genituen gauzak".



- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

☎ eta faxa: 943 70 14 97

publi.resa@euskalnet.net

B. Sarasketa, 1 ac 943 12 82 31

*Kafea, opilak, ogia,
pintxoak, ardoak...*

**Gozatu EIBARKO
PREZIORIK ONENEKIN!**

KAFETEGIA OKINDEGIA
SUTLONDO
LABADEROKUA Eguneroko 06.00etatik aurrera



INES BENGOA
(ipuin-kontalaria)

“Orokorrean ez dugu sexuaren inguruan modu irekian hitz egiten”

Martxoko hilabetea “emakumea eta artea” gaiaren inguruan egongo da girotuta. Hainbat ekintza daude antolatuta herrian eta horietako bat da “Hotzikara ipuin erotikoak” emanaldia. Helduentzako ipuin musikatuak dira Ines Bengoaren (ahotsa) eta losu Lizarragaren (musika) eskutik. Saioa Arrate Kultur Elkarteko Topalekuan izango da, martxoaren 3an, 19:00etan eta euskaraz. Bengoaren hitzetan ikuskizun honek sexua beste modu batean tratatzeko aukera ematen du, umore klabean eta komunikabideetan maiz agertzen diren “topikoengandik aldenduz”.

- Nolakoa da Hotzikara ikuskizuna?

Dibertigarria. Umorea da nagusi eta sexuaren inguruko ikuspuntu eta esperientzia ezberdinak kontatzen ditugu. Musika eta literatura erabiltzen ditugu sei istorio kontatzeko eta egia esan musikak istorioen esanahia sakondu egiten du. Ipuin bakoitza tradizio eta garai ezberdinetatik dator baina egia da badutela lotzen dituen hari bat: sexua. Protagonista desberdinak daude, emakumeak zein gizonak, eta horietako batzuk esperientzia bitxiak izango dituzte sexualitatea dela medio. Orokorrean, kontakizun hauen laguntzaz hain desberdinak ez garela ikusiko dugu. Istorioak nik aukeratuak eta moldatuak dira. Ez ditut sortu baina bai

moldatu, beraz, pixka bat nireak direla esango nuke.

- Nola hartzen da erotismoa gure inguruan?

Egia esan euskal jendea sexuarekin mugiaraztea nahiko zaila iruditzen zaigu. Mota askotako publikoak tokatu zaizkigu eta gero eta iparralderago joan, gero eta zailagoa da publikoarengandik erantzun argi bat jasotzea. Bartzuetan, ikuskizuna bukatu arte ez dugu jakiten jendeak ondo pasatu duen ala ez. Horrek zer pentsatu ematen digu. Nire ustez oraindik nahiko itxiak edo lotsatiak gara denok jendaurrean gai hauekin. Nik uste dut inportanteena norberak bere buruarekin zintzo eta argi hitz egitea dela. Sexuaz ari gare-

nean bakoitzak zer nahi dugun eta zer ez jakin behar dugu.

- Nolako esperientziak izan dituzue?

Orokorrean oso harrera ona izaten ari da. Esan bezala, sexua gure barru barruko gaia da eta zenbait lekutan oso agerian agertzen bada ere (zinean, publizitatean, interneten,...) ez dugu sexuari buruz modu irekian hitz egiten. Gainera gure proposamena oso ezberdina da... Komunikabideetan azaltzen dena topikoz beteta dagoela iruditzen zaigu.

- Martxoko "emakumeak eta artea" programazioaren barruan dago ikuskizuna...

Bai, nire ustez oso aproposa da, kontatuko ditugun istorioak emakume baten (nire) ikuspuntutik pasatzen dira-eta.

Koko-marruak Aratosteetarako giroa epeltzen hasi ziren asteburuan

Hamargarrenez etorri zitzaizkigun bisitan koko-marruak eta koko-dantzariak aurreko zapatuan, Kezka dantza taldearen ekimenez. Merkatu Plazan ekin zioten egunari goizean goiz eta, eguraldia lagun, ederto eman zuten egunaren zatirik handiena Gorosta eta Mandiolako base-rietan koko-eskean eta dantzan. Iluntzean, berriz, Mauxitxa txarangarekin batera egindako kalejirarekin atzo hasi ziren Aratosteetarako girotu zituzten herriko kaleak.



Maialen Belaustegi





Giza irudien erakusketak hasiko ditu 40. Antzerki Jardunaldiak

Datorren asteko barixakuan, martxoak 3an hasiko da 40. Antzerki Jardunaldietako egitaraua, Bartzelonako M.P.C-ren eskutik egingo den XV. Giza Irudien erakustaldiarekin. Bost aktorek jardungo dute 17:00etatik aurrera, Untzaga plazan eta Toribio Etxebarria kaleetan beste horrenbeste pertsonaiari bizia ematen: Karen Valderrama (robota, Argentina), Damian Fiore (Colon, Urugay), Maria Villata (iturria, Espainia), Francisco Aguado (Cervantes, Espainia) eta Jorge Balmaseda (punkya, Argentina) etorriko zaizkigu oraingoan, betiko moduan ikusle guztiak zur eta lur lagatzeko prest.

“Render” erakusketa Portalean

Edurne Martinez Arroyo (Bilbo, 1982) artistaren “Render” margo erakusketa zabalduko dute datorren barixakuan Portalean, 19:00etan. Martxoaren 26ra arte egongo da ikusteko aukera, martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30etara.

RENDER



Aratosteak Amaña auzoan

Aratosteak ospatzeko hainbat jarduera antolatu ditu “Amaña es la caña”, Amaña Auzoa Sustatzeko Elkarte eratu berriak: atzo, Amañako herri eskolarekin bat eginda, karroza bat mozorrotu zuten, gai modura itsasoa hartuta, eta Untzagaraino kalejira joan ziren, han ikastetxeen kalejirarekin bat egiteko. Eta kalejira amaitu eta gero, berriz auzora joan ziren, han jaiarekin jarraitzeko: txorizo pintxoak jan eta DJ batek girotutako festan ederto pasatu zuten. Gaur, berriz, 17:00etatik aurrera umeendako jokoak eta eskulanak egingo dira eta, horrez gain, txokolate-jana eta poteoa ere antolatu dituzte. Zapatuko egitaraua 17:00etan hasiko da, Bihar taldearen txotxongiloekin eta arratsalde osoan argazki lehiaketan parte hartzeko aukera izango da. Eta amaieran, Aratosteak agurtzeko salda eta txorizoa banatuko dituzte eta trikitilariak lagundutako poteoa egingo dute auzoan.



Ikuskizun komikoa

Zapatu gaua girotzeko asmoz ikuskizun komikoa antolatu dute Sutondo Labaderokuan (Bitor Sarasketa, 1 ac), BocaBeats bikotearen eskutik, 21:30etatik aurrera. Ivan eta Aitor bilbotarrek arrakasta handia lortu zuten iaz sare sozialetan, euren euskal gabon kanten bideoak milioitik gora bisita izan eta gero, eta bihar ere jendeari barrea eragiteko asmoarekin etorriko zaizkigu.



Eibartarrak herrialdeko mus finalean

Euskal Herriko IX. Mus Txapelketan herri mailako fasea gainditu eta gero, bihar Ibarra, 15:00etatik aurrera herriko frontoian jokatuko den herrialdeko finalean Eibarko bi bikotek jardungo dute: Jon Zubizarreta eta losu Plazaola batetik eta Jon De Castro eta Aitor Ogiza bestetik.

Misterio Jardunaldiak



Asteburuan (zapatuan egun osoan eta domekan goizez) Coliseo antzokiak hartuko dituen I. Misterio Jardunaldietarako sarrerak 25 euro balio du eta interneten zein antzokiko leihatilan erosteko aukera dago.



LOREA ARAKISTAIN

Internet sakona eta internet iluna

Dark Internet edo Internet iluna merkatu handia da, merkatu ilun bezain beltz eta handia.

Erraztasun handiz eta anonimoki salerosten da, batez ere, legez kanpoko droga. Ordaintzen da bitcoinekin eta mezulari edo posta bidez bidaltzen da demagun Asiako laborategi batetik gure etxera. Droga ez ezezik salerosten dira lapurtutako txartelen datuak 5 eta 30 euro artean, datu-kopuruaren eta txartelaren kredituaren arabera. Baita gauza larriagoak ere pornografia, armak eta gorputzeko organuak kasu. Internet iluna Internet sakonaren zati txiki bat baino ez da. *Deep Internet* edo Internet sakona esaten zaio ohiko bilatzaileetan agertzen ez den horri, Google eta horrelakoetan zerrendatuta ez dagoenari. Internet osoaren %90 eta %97 artean.

Horren guztiaren zati handi bat publikoak ez diren loturak edo fitxategiak dira. Gmailen pasahitz peko atala, adibidez; hau da, bilatzaileek ez dituzte gure mezu elektronikoak indexatzen.

Beste zati batera iristeko, ordea, ohiko nabigatzailea baino zerbait gehiago behar da. Horietara iristeko nabigatzaile ezagunena Tor da, espioitza edo zentsura bariko internet posible egin nahi lukeen proiektua.

Internet sakonak ahalbidetu ditu WikiLeaks, Panamako paperak eta beste hainbat kazetaritza lan eta eztabaida ideologiko.

Ezin ukatuko diogu Internet sakonari ilunaren zama. Baina aitortu beharko diogu bere izateko arrazoia Google eta Facebookentzat doan lan egiten dugun honetan.

Gobernuek haien herritarren byte bakoitza zelatatzearekin nahikoa ez eta mozal legea eskutan txioak ere zigortzen dituztenean. Pribatutasun ezak adierazpen askatasunari ere eraso dionean.

Aratosteek beteko dute asteburua

Atzoko Eguen Zuria atzean lagata, gaurtik hasita Aratosteek betetako asteburua daukagu aurretik gurean. Gaur 20:00etan ekingo zaio jaiari gurean, Urkizutik hasita Untzagaraino joango den Kaldereroen kalejirarekin. Behin Untzagara ailegatuta, kaldereroen abestiak eta dantzak izango dira protagonista, 21:00etan Eibar Rugby Taldeko neskek Aratosteetako pregoia irakurri arte. Eta gauean, 23:00etatik aurrera Cover Band Placton taldearen konzertua hartuko du Untzagako karpak.

Bihar, berriz, eguerdian hasiko da karpa barruko animazioa, San Kristobalگو jai batzordearekin eta hortik aurrera egun osoan izango da zer egin. Aurtengo egitarauaren barruan berritasun nagusia 13:00ean hasiko den koardilen kalejira lehiaketa izango da. Ustekabe fanfarreak lagunduta, izena eman dutenek Untzaga, Calbeton, Julian Etxeberria, Toribio Etxebarria, Untzaga ibilbidea beteko dute. Arratsaldeko 18:00etan, urteroko moduan, As Burgas Galiziako Etxekoek umeendako kokojantzi lehiaketa egingo dute. Parte hartzen duten guztientzat opari bana emango dute eta hiru onenentzat sari berezia egongo da. Untzagan, berriz, umeendako berbena eskainiko du Alaiki taldeak. Kalejira eta dantzaldi artean, goizaldera arte luzatuko dira Aratoste Zapatuko ekitaldiak. Aratoste Domeka lasaia go



izango da: 11:00etan Aratosteetako kalejira egingo dute Usartza Txistulari Taldekoek eta 17:00etan, berriz, ...eta kitto! Euskara Elkarateak antolatutako playback lehiaketa hartuko du karpak, DJ Arnorekin.

Aratoste Martitzenean agurtuko ditugu Aratosteak. Arratsaldean umeendako jolasak egingo dira Untzagan, Astixaren eskutik. Sardinaren entierri txikia, Hortzmuga antzerki taldearekin eta trikitalariek lagunduta, berriz, 18:30etan hasiko da eta jarraian karpa umeendako diskoteka bihurtuko da, Arima Cool Tour taldearen saioarekin.

Eguen Zuri argazki lehiaketa

Arrate Kultur Elkarateak XX. Eguen Zuri argazki lehiaketa antolatu du, "*besteak beste, aratosteetako oroitzapen fisikoa gera dadin*". Edozein zaletuk izango du parte hartzeko aukera, Aratosteak gai modura hartuta egindako argazkiak aurkeztuta (ez dute zertan Eibaroko Aratoste edo Eguen Zurikoak izan behar). Parte hartzaile bakoitzak gehienez 4 argazki aurkeztu ahal izango ditu, eta argazkiak koloretan nahiz zuri beltzean aurkez daitezke. Hori bai, soportea edo passpartout-a izan beharko du (40x50 zentimetrokoa). Lanak Arrate Kultur Elkartean, lehen solairuko bulegoetan edota Kultu tabernan jasoko dira, barruan, so-bre batean, lanaren izena, egilearen izen-abizenak eta kontakturako telefonoa dituztela. Azken eguna martxoak 29 (eguztzena) izango da. Argazki onenari 160 euroko saria eman-godite, bigarren onenari 100 eurokoa eta hirugarren onenari, berriz, 60 eurokoa. Informazio gehiagorako bulegoan galdetu, 943 20 22 99 telefonora deitu (laga mezua erantzungailuan) edo arratekultu@gmail.com helbidera idatzi.



Bizkarra nola zaindu ikasteko hitzaldia

Eneko Mallagarai fisioterapeutak bizkarrekin lotutako arazoak nola saihestu daitezkeen azaldu zuen martitzenean, ...eta kitto! Euskara Elkarateak antolatuta Kenko osasun gunean emandako hitzaldi interesgarrian. Gainera, mina arintzeko lagungarriak diren hainbat ariketa errez esplikatu zizkien entzutera joan zirenei.



Gatzato tailerra eta azoka ELGOIBARREN

Biharko hil amaierako feria antolatu du Elgoibarko Udalak, Debemen elkartearekin elkarlanean. Azokaren harira umeei gatzatoa nola egiten den erakusteko tailerra egingo dute. Aurten zortzi hil bukaerako azoka egingo dituzte Elgoibarren (uztailean, abuztuan eta abenduan ez da egingo).



Inauterietako dantzak ELGETAN

Domekan 19:00etatik 20:30era Herrixa Dantzan dantzaldi irekia hartuko du Elgetako Spaloia 13 kafe antzokiak, Elgetako udalaren laguntzarekin. Aratoste domeka izango dela eta, Patxi Montero dantza gidari izango duen saioa Inauteriei eskainitako monografikoa izango da. Sarrera doan eta parte-hartzea librea izango da.



Ustekabe ERMUKO Aratosteetan

Martitzenean Ermuan egongo dira Ustekabe fanfarrekoak, Aratosteetarako egitarauaren barruan antolatutako kalejira eskaintzen 19:00etatik aurrera. Horren aurretik haurrentzako diskoteka (16:00etan) eta "Asmakizun asmatzaileak" kale ikuskizuna (18:00etan) egingo dira eta 23:00etan, berriz, Oihan Vegak DJ Festa eskainiko du.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

hildakoak

- Elvira Bastarrika Barrenetxea-Arando. 94 urte. 2017-II-15.
- Jesus Saez Caño. 71 urte. 2017-II-16.
- Jesusa Barinagarrementeria Gandiaga. 89 urte. 2017-II-16.
- Felicidad Mendikute Egiguren. 86 urte. 2017-II-18.
- Patxi San Miguel Milikua. 65 urte. 2017-II-18.
- Jose M^a Beobide Larrea. 82 urte. 2017-II-18.
- Carmen Taboada Fernandez. 88 urte. 2017-II-19.
- Jose M^a Andonegi Juaristi. 88 urte. 2017-II-19.
- Antonia Garcia Balenziaga. 93 urte. 2017-II-21.
- Iñaki Goikoetxea Izeta. 46 urte. 2017-II-22.

jaiotakoak

- Nura Apilanez Garmendia. 2017-II-14.
- Erik Latorre Guijarro. 2017-II-15.
- Lea Lamarain Cobo. 2017-II-15.
- Berat Lamarain Cobo. 2017-II-15.
- Maddi Bengoetxea Moreno. 2017-II-17.

farmaziak

- Barixakua 24
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Zapatua 25
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Domeka 26
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Astelehena 27
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Martitzena 28
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- Eguaztena 1
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Eguena 2
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Barixakua 3
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI - 2017AN-
 Mandiola (S. Agustin, 3)

SUDOKUA

9	7					1	5
			4				
		6			8	7	
			2	5	6	3	9
1	2	9	4	3			
	5	4			7		
			7				
7	1					5	6

2	6	4	3	9	5	8	7	1
7	8	5	6	1	2	9	3	4
1	3	9	7	4	8	2	6	5
6	4	3	9	5	7	1	2	8
5	1	2	8	3	4	6	9	7
9	7	8	2	6	1	4	5	3
4	9	1	5	7	6	3	8	2
8	5	6	4	2	3	7	1	9
3	2	7	1	8	9	5	4	6

AURREKOAREN EMAITZA

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekoa943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

Barixakua 24

ARATOSTEAK AMAÑAN

17:00. Umeendako joko eta eskulanak.

18:00. Umeendako txokolate-jana.

19:00. Koko-jantzita, auzoan poteoa egingo da. "Amaña es la caña"-ren eskutik. Amañan.

BARIXAKU ERREGULARRA

20:00. Urkizun hasita, Untzagaraino, Kaldereroen kalejira.

20:30. Kaldereroen abestiak eta dantzak. Untzagan.

21:00. Aratosteetako pregoia. Untzagan.

23:00. Cover Band Placton taldearen kontzertua. Untzagan.

Zapatua 25

MISTERIO JARDUNALDIAK

09:00/14:00 eta 16:00/

20:00. I. Misterio Jardunaldiak. Coliseoan.

ARATOSTE ZAPATUA

12:00. Animazioa Aratosteetako karpan, San Kristobaleko Jai Batzordeak girotuta. Ardoen dastaketa.

12:30/14:00. Rockalean emanaldia. Untzagan.

13:00. Aratosteetako koadrilen kalejira. Ibilbidea: Untzaga, Calbeton, J. Etxebarria, T. Etxebarria, Untzaga. Kalejira Ustekabe fanfarrearekin.

18:00. Mozorro lehiaketa, Galiziako Etxean.

18:00/20:00. Untzagatik hasita, Brass Band taldearen kalejira.

18:30/20:30. Umeendako berbena, Untzagako karpan, Alaiki taldearekin.

19:00. Aratosteetako koadrilen kalejira, taberna eta kartel lehiaketen sari banaketa, Untzagako karpan.

23:00/02:00. Dantzaldia Alaiki taldearen eskutik. Untzagako karpan.

ARATOSTEAK AMAÑAN

17:00. Txotxongiloak, Bihar taldearen eskutik.

18:00. Umeendako txokolate-jana. DJ baten emanaldia. "Amaña es la caña" Aratosteetako argazki lehiaketa, izen bereko elkartearen eskutik. Amañan.

UMOREA

21:30. Ikuskizun komikoa, Boca Beats bikotearen eskutik. Sutondo Labadero-kuan (Bittor Sarasketa, 1)..

Domeka 26

MISTERIO JARDUNALDIAK

09:00/14:00. I. Misterio Jardunaldiak. Coliseoan.

TXIRRINDULARITXA

09:45. Udaberri Proba. Helmuga Eibarko Bizikleta Plazan (11:48).

ARATOSTEAK AMAÑAN

10:00. Salda eta txorizoa banatuko dituzte.

12:00. Triki-poteoa auzoko tabernetan. "Amaña es la caña"-ren eskutik. Amañan.

ARATOSTE DOMEKA

11:00. Aratosteetako kalejira, Usartza Txistulari Bandaren eskutik.

17:00. Playback lehiaketa, LH 5-6 mailetakoko ikasleekin, ...eta kitto!-k antolatuta, DJ Arnorekin. Untzagan.

KIROLA FAMILIAN

17:30. Ipurua kiroldegian.

Martitzena 28

IKASTEN

10:00. "Dolua eta mina" hitzaldia, Adindu-ko Elena Iraolagoitiaren eskutik

IKASTEN

16:00. Puntu-tailerra.
17:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

ARATOSTE MARTITZENA

17:00/18:30. Umeendako jolasak, Astixaren eskutik. Untzagan.

18:30. Sardinen entieru txikia, Hortzuga antzerki taldearekin eta trikilariek lagunduta.

18:30. Umeendako diskoteka, Arima Cool Tour taldearekin. Untzagako karpan.

Eguaztena 1

IKASTEN

11:00. Kafe-tertua: "Aisialdia disfrutatzen dugu?". Untzaga jubilatutako etxean.

MENDI JARDUNALDIAK

19:00. Bilbao Mendi Film Festival-eko pelikula. 5 euro. Coliseoan.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

Eguena 2

IKASTEN

10:00. "Siria eta Jordania gerraren aurretik" hitzaldia, Ernesto Olasagastiren eskutik. Armeria Eskolan.

HAUDALAN

11:00. "Euskal industria enpresen erronkak" hitzaldia, Koldo Saratxaga eta Pablo Aretxabalaren eskutik. Armeria Eskolan.

IKASTEN

17:45. Dantzaldia. Untzagako jubilatutako etxean.

ODOL-EMATEA

18:30/20:30. Odola emateko saioa odol-emaileentzat. Anbulatorioan.

MENDI JARDUNALDIAK

19:00. Bilbao Mendi Film Festival-eko pelikula. 5 euro. Coliseoan.

KALERATZEAK STOP

19:00. Kaleratzeak Stop plataformako enbilera irekia. Portalean.

KALEETAN KANTUZ

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan

Erakusketak

Otsailaren 28ra arte:

- SANTOS TOURIÑOEN argazkiak. (*Portalea tabernan*)
- CARLOS ROMEROREN argazkiak. (*El Ambigú-n*)

Martxoaren 5era arte:


- "EIBAR MUNDO MOTOR" erakusketa. (*Armagintzaren Museoan*)




Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, MAIALEN, astelehenian 12 urte egingo dozuz-eta. Musu eta besarkada haundi bat famelixaren guztiaren partez.



Zorionak, BEÑAT, martitzenian urtiak bete zenduaz-en-eta. Musu bat zuretzako, bihotz-bihotzez, Jokinen eta etxekeuon partez.



Zorionak, OIHAN, astelehenian urtetxua bete zenduan-eta. Laztan haundi bat aitxitxa eta amamaren partez.



Zorionak, EUKEN, domekan 4 urte egingo dozuzelako. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Xuhar Lehengusuaren partez.




Zorionak, OIER, astelehenian lau urte bete zenduaz-en-eta. Musu potolo bat famelixaren eta, batez be, Lierren partez




Zorionak, NAHIA, etxeko pixpirita, hillaren 22xan 9 urte egin zenduaz-en-eta. Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be, Heleneren partez.



Zorionak, JON, astelehenian bi urtetxo bete zenduaz-en-eta! Patxo haundi bat etxekeu eta, batez be, MAIALENeN partez.



Zorionak, ANE eta PABLO, zuen 3. eta 8. urtebetetzietan. Segi beti bezain alai. Musu pillua etxekeuon partez.



Zorionak, IKER, etzi lau urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat famelix guztiaren partez.



Zorionak, Mª TERESA, atzo 60 urte egin zenduazelako. Musu haundi bat senarra eta seme-alaben partez.



Zorionak, AMAMA!!! Maider, Jone eta Azkarren partez!!!

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

25ean: 17:00, 19:45, 22:30(A)

26an: 17:00, 20:00

27an: 20:30(Antzokia)

"Es por tu bien"

Zuzendaria: Carlos Theron



(2 ARETOAN)

25ean: 17:00, 19:45, 22:30

26an: 17:00, 20:00(Antzokia)

27an: 20:30

"Lo que de verdad importa"

Zuzendaria: Paco Arango



(1 ARETOAN)

25ean: 22:30

26an: 20:00(2 Aretoa)

27an: 20:30

"Figuras ocultas"

Zuzendaria: Theodore Melfi



(ANTZOKIAN)

26an: 17:00

"Ribbit"

Zuzendaria: Chuck Powers





Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira:

Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Urkizun pisua salgai. Tel. 617-329239.
- Pisua salgai Txaitxa-Zelai kalean. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 6. solairua, igogailuarekin. Terraza eta ganbara. Tel. 665-733954 eta 629-449646.

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibar erdialdean. Tel. 637-004773.
- Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 646-778839.
- 2/3 logelako pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 652-532589.
- Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. 3 logelakoa. Tel. 689-571882.
- Bi lagunentzako pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Ezinbestekoa igogailua izatea. Tel. 640-378020 eta 634-465136.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Lokala salgai Urkizu dorreetan. 85 m². Prezio interesgarria. Deitu 17:00etatik 20:00etara. Tel. 606-773886.

3.2. Errentan

- Garajea alokagai Ego-Gainen. Tel. 685-710962.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-057185 eta 648-039187.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez eta asteburuetan ere. Tel. 603-386326.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 662-012834.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutegitan. Esperientzia. Tel. 657-831093.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak zaintzeko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 604-302842.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 630-837736.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 671-329852.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-498697.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-737903.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 653-156403.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Gidatzeko baimenarekin. Tel. 689-571882.
- Emakumea eskaintzen da orduka umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 626-197217.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-151806. Maria Elena.
- Gizona eskaintzen da nagusiak orduka zaintzeko. Baita gauzez ere. Tel. 650-513412.
- Gizona eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 695-917617.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 628-765929.
- Gizona eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 602-001567.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko. Tel. 680-981704.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 631-418130.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Prestasun osoa. Tel. 602-123942.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 622-684289.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 632-573554.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 692-345215.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 689-798284.
- Neska euskalduna eskaintzen da pegoarak eta soziedadek garbitzeko. Tel. 617-571210.
- Eibarko neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 610-096417.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldean nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 636-841158.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 631-658703.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-351638.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta sukaldari jarduteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 657-773138.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile, garbitzaile eta zaintza lanerako. Tel. 602-394753.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 634-388843.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 698-270997.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Externa. Tel. 661-001246.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Externa. Tel. 655-310861.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita ospitalean ere. Tel. 659-908513.
- Mutila eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Tel. 631-414397.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Erreferentziak. Tel. 600-212516.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-678577.

- Neska eskaintzen da gauzez nagusiak zaintzeko. Tel. 632-733573.
- Eibarko mutila eskaintzen da garbiketarako lanerako eta metal arloko sektorean lan egiteko. Tel. 630-112222.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientzia. Tel. 632-139806.
- Neska eskaintzen da gauzez nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-402356.
- Neska arduratsua eskaintzen da sukaldari moduan eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 602-141712.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-137969.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka eta baita asteburuetan ere. Tel. 609-543957.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Interna eta baita asteburuetan ere. Tel. 632-218828.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko. Orduka eta baita asteburuetan ere. Tel. 632-552206.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko, nagusiak zaintzeko eta dendarri jarduteko. Esperientzia. Tel. 632-426847.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Esperientzia. Tel. 616-348918.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 631-230281.

4.2. Langile bila

- Nagusiak zaintzeko pertsona arduratsua behar da Eibarren goiz eta arratsaldean. Ezinbestekoa profesionaltasun ziurtagiria edo geriatria laguntzaile titulazioa. Tel. 600-831698.
- Neska/mutil euskalduna behar da umeak arratsaldean bi orduz zaintzeko. Tel. 628-240923.- Sukalde-laguntzailea behar da Eibarren asteburuetarako. Bidali curriculum-a. 279 posta-kutxatila.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergoa eta Unibertsitate mailerako matematika etabar ematen dira. 1-3 ikasleko taldeak. Goizez ere bai. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Masajerako aulkia salgai. Motorraren. Egoera onean. Eta baita pandero profesionala ere. Tel. 943-702654 eta 678-856525.
- Kotxa-kapota, aulkia eta "traveller"-a salgai. Zakuak opari. Tel. 669-293415.
- Mini-sehaska (Mutsy markakoa) salgai. Baita kotxearendako silak: 0-1 eta 2-5 urte tarterako (Recaro markakoa). Tel. 669-293415.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak



... GIRORIK ONENA!!!

CABARET

ordaindu ezin den
ZATOZ GURERA! giro bizia

Trinkete
EIBAR 1957

Ikastolako gelan bagina

GURIDI RUGBY

gozatuko dugu

BAR BUENOS AIRES

Antzinako EGIPTO
bizi ahal izango duzu!

GLADIADOREA XOK
bazara

hau da zure plaza

Izan aingeru,
izan deabru...

...esku zabalik hartuko zaituztegu!

Kultö:

etorri gurekin bide onetik goaz-eta

TXOKO

Txirrindularien txokoa

Eibar

HAU ZIDOK JAMAICA

ROCKABILLY REBEL

Beleko
Dista eder z (Eibar)

hirurok

SEGUIMOS VOLANDO JUNTOS

EDERTO PASAU ARATOSTE HAUETAN!

Hyundai i30 berria. Move on.



Evolución. Superación. Emoción. (Eboluzioa. Gainditzea. Emozioa.)

Konformatzea? Ez da zure estiloa, ezta gurea ere. Eboluzionatzea? Beti. Filosofia horretatik jaio da Hyundai i30 Berria. Gure burua berriz gainditu dugu eta besteak gainditu ditugu. i30 Berria, bere diseinuarekin eta lotura-sistemekin harritzeaz gainera, Hyundai Active Safety Pack-arekin datorren bakarra bada. Segurtasun aktiboko sistema osoa, bere mailakoen artean bereizten duena: balaztaketa autonomoa hirian eta errepidean, talka-aurreko ohartarazpen-sistema, gurutzaldi-kontrola eta abiadura-mugatzaila, oharkabeko karril aldaketari aurre egiteko sistema aktiboa, gidariaren neke-detektatzailea eta argiak automatikoki pizteko sentsorea.

Eta, horrez gainera, kotxetik kanpo ere seguru senti zaitezzen, betikoak dituzu:

- 5 urteko bermea km mugarik gabe.
- 5 urteko laguntza errepidean.
- Eta finantzatzuz gero, 5 urteko mantentze-lana.

Hurbil zaitez zure Hyundai kontzesionariora eta aurkitu zure neurriko finantziazioa. Zeren zain zaude? Move on.

Hyundai i30 Berria 14.900€tik aurrera.

OARSO CAR Olaso Polig., 17 - **ELGOIBAR** - 943 74 14 80



Hyundai i30 Gama Berria: CO₂ isurpenak (gr/km): 99-125. Kontsumo mistoa (l/100km): 3,8-5,5.

PSP gomendatua Penintsulan eta Balearretan (30 PD 1.0 TGI) 88,3 Kw/120cv KLASA modeloztat (14.900€). Berme dauka BEZ, garraila, Matrikulazio-zerga, sustapen-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena, mantentze-lana eta berria erostekoan Hyundai kotxe bat entregatuz gero, berrituz zure Hyundai Deskontua. Eskaintza baldiduna Cinking Solución Flexible produktuari. Santander Consumer EFC S.A.-ren bitartez, finantzazten duten bezero partikularentzat. Finantzatzeko gutxieneko 11.000€ gutxieneko 36 hilabete epean, eta gutxieneko egonaldia 36 hilabete. Finantziarioa finantza-erakundeak aztertuta eta onartu behar du. Eskaintza 2017/03/31ra arte da baldiduna. Erakusten den modelo: i30 Style berria. Mantentze-lana ibilgailuaren finantziarioan lotuta. * km mugarik gabeko 5 urteko Hyundai berme komertziala Hyundai Kontzesionarioen Sare Ofizialean erositako autoetan soilik aplikatuko da. Eskaintzaren baldintzak, mantentze-lana eta bermearen inguruko informazio gehiago Hyundai kontzesionario-sarean edo www.hyundai.es.

FANUC

ATE IREKIAK FANUC ELGOIBAR

Martxoak 9 eta 10 (CNC, ROBOTIKA, MAKINAK)

Informazioa / inskripzioa: elgoibar.fanuc.es



OLASO INDUSTRIALDEA 3 - ELGOIBAR TF: 902 13 35 35 WWW.FANUC.ES